# OTOI - IDAZTINUA

JAUNGOIKO-ZALE

## OTOI - IDAZTIÑUA

MIGUEL DE ZULUETA
OÑATE

FUNDAC
SANCHO E
FUNDA

M-39674 / R-43497
ATV 21599

Jaungoiko - Zale'ren idaztijak

# Otoi-idaztiñua

:; Vilariño, Josulaun Abak ::
egin ebanetik euzkeraldua

1919
JAUNGOIKO - ZALE'REN IRARKOLEAN
Zoŕnotza. — (Bizkaya)

Victoriæ, 16 Junii 1917.

*Nihil obstat*

**Dr. Petrus Menchaca.**

*Censor.*

Victoriæ, 18 Junii 1917.

Imprimatur,

*Gubr. eccus. Dioces. S. V.*

**Dr. Joseph Leontius O. de Zarate.**



NI NAIZ
BIDIA, EGIA TA BIZITZA

( Joan. XIV, 6 ).

# Sarbidia

Kistar euzkeldun ori: zeure arimako kistar-arazuak obeto ta errazago egiteko, euzkerazko liburutxu au al izan dogun politoen atonduta, biotz gustiaz eskintzen dautzugu.

Euzkerea Jaungoikua'k emon dausku geure izketatzat, berau erabilli dagigun bizitzako arazoetan. Bizitzako arazorik andienak arimakuak dira, aunetatik, barriz, andienetaikua otoya (oraziñua); aunetantxe, ba, erabilli biar dogu euzkerea Jaunak emoniko ele garbi ta zindua. Euz-

keraz obeto aditu ta ulertuko dozuz arimako ikaskixunak, sakonago sartuko yatzuz biotzian, nekezago iges egingo dautzube, ta gogotsubago ta samurrago agertu ta erabilliko dozuz, euzkerea zeure - zeuria dalako, zeure biotz eta izatiaren izpi ederra lez; orregaitik beragaz arimako arazoak gozatsu ta errazago egin biar: indar orixe Jaungoikua'k emon dautso izketa bakotxari.

Emen laburki irakasten yatzun gustia eder-ederra ta onurakorra yatzu.

Irakurri gogoz, josi ondo biotzbarru - barruban eta egin gogozago emen esaten yatzuna, berton daukazu Zerurako bide artez ta ederra-ta; baña asi-ta gero ez itxi bertan-bera, gogaituta: iraupena biar dozu betiraunez zoruntsuba ixan gura ba'zara.

# Kistar onaren bizikerea

1. — Pekatu astunik ez egin. Baña ez dozu au lortuko pekatuban jausteko zorietatik alde - egin barik; beraz Jaungoikua iraindutekо galbide gustietatik ardura andiz iges egikezu.

2. — Ez egin pekatu ariñik be; batez-be ezaupen eta naikun osuaz.

3. — Pekatutik aldendu ezkero besterik egiteko biartuta ez zagoz. Baña ondo dagokitzu:

## Egunoro

4. — Goxetik etxeratu, adionez ogeratu be, al ba-zara beti ordu baten.

5. — Lo larregi ez egin (zortzi orduko lua naikua ixaten da) ta jagi beti ordu baten alegiñez.

6. — Mesea egunoro entzun; liburubaz oba, bestela irudimena zabal ibilliko yatzulako.

7. — Egunoro mesatan gure Jauna artu. Obeto, barriz, gizakumia ba'zara, baita umia ba'zara be, naiz-ta biotzian berotasunik ez asmau.

8. — Iñondik al ba - dozu ordu laurengo gogartia (meditaziñua) egikezu. Aunetarako era erraza geruago imiñiko dautzugu.

9. — Egunik geyenean lan egikezu. Biar ixana ba - daukazu, biar - izanez, ezperen ekandunez (birtutez).

10. — Biar - besteko atsedena ta jolasa artu egikezu. Salerno' ko jakintsubak iñoen bizikera bereza ta osasunkorrena *iru zortziduna* zala: zortzi orduban lo, zortzi orduban lan eta beste zortziretan enparabak; yan, itz egin, olgau, irakurri ta abar. Batzuk luzaruago lan egin biarra daukoe ta lo urriago; baña beste batzuk lan gitxi ta lo asko egiteko ekandu gaiztua dabe.

11. — Gau - oro esan Errosario deuna;

zeure etxeko ta otseñakin ba'da obeto; ez bedi baña luzia izan.

12. — Liburu onak eta irakaskorrak irakurri.

13. — Ogeratu baño lenago zeure gogoa aztertu edo examiñau apur baten, eguna zelan igaro dozunetz.

## Astero

14. — Domekaz atsedendu zaite; Jaun Goikua'k agintzen dau, ta osasunerako be biar da.

15. — Domeka ta beste jayegunetan mesa osua entzun barik ez, arren, itxi.

16. — Egunoro Gure Jauna artzen ez ba-dozu, domeka ta ostantzeko jayetan artu egikezu, batez be gixakumia ba-zara.

17. — Mesa osua entzunaz bakarrik ez ase; Gure Jauna ikertu (ikustau), itzaldia entzun, kistar - ikasti edo dotriñearen atzalbenera, mesa nagusi edo arratsaldeko eleizkizunen batera juan eta gogo-gaitzazko idaztien (liburuen) bat irakurri.

18. — Jolastu zaite baña ez jolas deun-

gietan. Jolasik onenak dira etxekuakin eta lagun zintzuakin egiten diranak.

19. — Larunbatez egin zerbait Andra Maria'ren omen eta opaz.

## Illero

20. — Egunoro edo astero gure Jauna artzen ez ba'dozu, illero artu egikezu, batez-be gizakumia ba'zara.

21. — Egun bat ixendau illero zelan bixi zaran, gomutetako ia oberuntz zuazen ala ez.

## Urtero

22. — Ondo izango da urtero Iñazio Deunaren Gogo-iñarkunak (Ejerzijuak) egitia Loyola'n edo beste toki baten.

23. — Paskoetan ez arren geratu gure Jauna artu barik, ezta zeure Erlejiñua gorantz ala berantz duan aztertu barik be.

## Aldi gustijetan

24. — Egin al dozun on gustija iñori

25. — Gauza gustietan Jaun-Goikua'ri atsegin emotia gura izan.

26. — Elexako Bazkun edo Kongregaziño bati izena emon.

27. — Pekatu aztunaz ez, arren, egundo ogeratu.

28. — Il biar dan legez beti bizi.

# Jagitaldirako Otoyak

Ur onetsiya (bedeinkatuba) artu ta *Aitearen*..... egin:

Aitea'ren, eta Semia'ren, eta Espiritu Santua'ren izenez. — Olantxe.

Jauna, entzun nire otoya: ta nire deya Zeu'ganatu bedi.

## Otoya

Egun aunen asikaldira eldu eragin dauskuzun Jaungoikua, jagon gagizuz gaur zeure almenaz, egun aunetan pekatuban jausi ez gaitezan, eta bai geure itz, gogo ta egiñen gustiakaz zeure legia bete ta egiztu dagigun. Jesu-Kisto zeure Seme ta geure Jauna'gaitik. — Olantxe.

Jauna, lagun zakit.

Jauna, erdu arin, niri sorosi edo sokorritera.

Jauna, lagun zakit.

Jauna, erdu arin, niri sorosi edo sokorritera.

Jauna, lagun zakit.

Jauna, erdu arin, niri sorosi edo sokorritera.

## Otoya

Zuzendu, donetu, erabilli ta zaindu egizuz, arren, gaur gure biyotz ta gorputzak, gure sentzun, itz eta egiñenak, zeru - lurreko Jaungoiko altsu orrek, emen eta betiraunian, azke edo libre ta zorundun izatia irabazi daigun, Zeuk, beti - beti bizi zaran giza - Erosle orrek lagunduta. — Olantxe.

## Jesus Biyotz Deuna'ri Eskintza

### (Konsagraziñua)

¡Ene Jesus! Maria Biyotz Orbanbakuaren bidez eskintzen dautzudaz egun aone-

tako neure otoi, egiñen eta nekiak, zeuri egiten dautzubezan irañen ordez, ta zeure Biotz dontsubaren beste asmoetarako, batez be Otoiz - Bialguntzaren (Apostolutziaren) illa aonen asmorako.

## Andra Maria'ri Eskintza

¡O ene Anderoi! ¡O ene Amoi! Osoosorik eskintzen nayatzu. Eta neure maitasun semekorraren agerbidetzat eskintzen dautzudaz ene begi, belarri, min, biotz ta guenez nire izate gustia. Zeuria nazan ezkero, zeure gauza lez zaindu ta aldeztu (defendidu) naizu, Ama errukiorra. — Olantxe.

Iru *Agur Maria...*

## Jose Dontsubari

Ardura andiaz zeure Ama Orbanbakuaren senartzat Jose Dontsuba autu zenduban Jauna: arren egikezu emen lurrian jagolatzat goraltzen dogun lez, an Goyan bitartekua izan dakigula. Olantxe.

## Aingeru jagoliari

Jainkua'ren Aingeruba ene Aingeru Jagolia! Jainkua'ren ontasunak zeure ardurapian imiñi naun ezkero, arren argitu, jagon, zuzendu ta zaindu nagizu. Olantxe.

Orain esakezu astiro *Kredua.*

## Abemarietakuak
### Goiz, Eguberdi eta Illuntzian

—Jainkua'ren Aingerubak Maria'ri iragarri eutson.

—Eta Espiritu Santuba'ren bidez sortu eban: *Agur Maria...*

—Ona emen Jauna'ren Mirabia.

—Egin bedi nigan zuk diñozuna: *Agur Maria...*

—Jainko - Semia gizondu zan.

—Eta geure artian bizi izan zan: *Agur Maria...*

—Otoi egizu gure aldez Jainkua'ren Ama Deuna:

—Kristo'ren abintza-duin izan gaitezan,

## Otoya

Izuri egiezu, arren Jauna, zure grazia gure adimenai, Aingerubak iragarrita Kristo zeure Semia'ren Gizakundia ezautu dogunok, bere nekaldi ta gurutziaren bidez berbiztuta zoriontzara eldu gaitezan: Jesukristo geure Jauna'gaitik. — Olantxe.

# Etzataldirako Otoyak

## Gogo - azterketia

Ogeratu aurretik ondo da, arintxo baño ez pada be, norberen gogoa aztertzia egun aretako bizikeriatzaz. Onantxe egin daikezu:

1.° **Eskerrak emon.** — Egun gustiko onegiñakaitik Jaunari biotzetiko eskarrak egin.

2.gn. **Adimen-argia eskatu.** — Argia eskatu, zeure uts eta galbidiak, zeure ekandun eta era onak ezautzeko, baita be grazia eskatu damutu ta onduteko, ta bide onari adoretsu jarraitzeko.

3'gn. **Azterrena.**— Aztertu zeure biotza laburto lau gauza aunetzaz:

¿Zeintzuk dira Jaungoikua'ren aurka, lagun urkoetzaz eta neure burubatzaz egin dodazan utsak? Neure izakerea obetu ala gaiztotu egin ete da?

Pekatu egiteko biderik izan ete dot? ¿zeintzuk? Gomutau egizu ondo, euretan zeure guraz sartu zaranetz edo ondiño be ete dirauen.

¿Zeintzuk ekandun erabilli dodaz? — Ziñesmena, itxarotasuna ta Jaungoiko - maitasuna.

Zurtasuna, zuzentasuna, neurritasuna ta sendotasuna.

Egikun onen baten jarduteko eretia galdu ete dot? Batez-be zeure bizikereari dagokiozan oitura onak ete dira? ta ondiño be euretan jarduteko erea ete diraun?

**4'gn. Damuba.** — Poztu utsegiterik ez ba'dozu, edo gitxi ba'dira, ta Jauna'ri eskarrak egin. Izan ba'dozuz, eskatu egiozu parkazi-ziñua, esan *Neure Jesukristo Jauna* ta utsai dagokien lez beste otoi ta nekien bat be bai.

**5'gn. Erabakia.** — Lau gauza aunek gomutau: Zelan utsegitiak aldenduko dozuzan urrengo egunian. Zelan galbidetik iges egingo dozun. Zelan egiñen on geyagotan jardungo zaran. Zelan obeto eutsiko dautsezun ona egiteko erai. Gomutau apurtxu baten biar zer jazoko yatzun. Zintzoago ibilteko erabagia artu, ta orretarako eskatu laguntasuna.

Esan *Aita guria* ta *Agur Maria.*

## Jesus, Maria ta Jose'ri

¡Jesus, Jose eta Maria, zeuei emoten dautzubet neure biotz eta arimia! ¡Jesus, Jose eta Maria, lagundu nakikezube eriotzaldijan! ¡Jesus, Jose eta Maria, zubekaz atsedendu beitez nire biotz eta arimia!

## Bernardo Deunaren Otoya

¡O Maria Birgiña errukior - errukiorra! gomutau egixu iñoz entzun ez dala zuri laguntasuna eskatu dautzunik batxu be deslai itxi dozula; uste aunaz sendaturik ni pekatariau negar eriuan etzuten naz zeure oñetan; ¡o Jesus'en Ama, nire deyei ez arren gortu, ta bai errukior ta samurki entzun egixuz ta emodazu eskatzen dautzudana. —Olantxe.

## Il-agiñan dagozanen aldez Jesus'en-Biotz Deuna'ri Otoya

O Jesus' errukior utz, gogo - maitatzalle sutsuboi, zeure Biotz Deuna'ren il - larria ta zeure Ama Orbanbagiaren neke ta oñaziakaitik arren eskatzen dautzut, zeure Odolaz garbitu dagizuzala orain il - agiñian dagozan eta gaur ilgo diran pekatariak. —Olantxe.

Jesus'en Biotz il - larria! Il - agiñan dagozanei erruki zakiez.

## Ogera sartu-aurretik esateko Otoya

Jauna, zeure betseñak lez yagon nagizu. Zeure egapian zaindu nagizu.

## Otoya

Ikustau egizu arren, Jauna, gela au, ta jaurti bertatik urrin arerioen sare ta lakiuak; bizi bediz berton zeure Aingeru deunak eta bakez yagon nagiela ta zeure onespen edo bendeziñua beti geukin izan dedilla. Jesukristo geure Jauna'gaitik. Olantxe.

Ur onetsija edo bedeinkatua artu ta *Aitearen* egizu.

## Mayaren onespena

Onetsi gagizuz, Jauna ta onetsi egizuz, zeure ontasunak emonda artuko doguzan emokai aunek.

*Aita guria, Agur Maria* ta *Gloria Patri.*

Betiko atsedeneko Erregiak Goiko maikide egin gaizala. —Olantxe.

## Eskerrak egitia

Zeure onegin gustiekaitik eskerrak emoten dautzuguz Jaungoiko Altsu amai bako egunetan bizi zaran orri. Olantxe.

# Mesea

Mesea da gure Erlejiño Deunaren egiñenik nagusiena eta Eleizkizunik goitarrena. Meseak barristutzen dau egiaz ludi aunetan izan dan egiñenik eregiena: Gurutzeko Oparia.

Jaungoikoa'ri dagokion gurkizun (adoraziño) berezia, ludian, Mesa deuna da: Berari dagokionez eskerrak egiteko era bakarra: Jaungoikoa'ren zuzendasunari dagokionez gure irain (opensa) zorra kitatutzeko ordain bakarra, ta Jaungoikoa'k emon nai dauskuzan eskar gustiak jadesteko eskari egoki ta ugari-ugaria.

Mesea da kristiñabak euki daiken eraspenik onena. Jaunari atsegiñen yakona, gogua geyen asetzen dautsona. Garbitokiko arimai geyen laguntzen dautsena. Zerutik eskarrik geyen jadesten dauzana.

Mesea ondoen entzuten da, abadiaz batera Opari au eskiñiaz ta al dogun giñoan berak egiten dauna egiñaz. Bada, egiz, mesa-orduban elexan batzauten gara eleizkizonakin batera Opari au eskintzeko. Mesako otoirik geyenak

bardiñak dira beti. Baña batzuk jayari dagokiozanak izaten dira. Emen Sakramentu gustiz Deunari dagokiozaŋak daukozuz.

## Mesako Otoyak

Abadiak, oparri barrenian, Mesea asten dau, laguntzalliaz aldizka esanik urrengo Eresi (salmo) au, Dabid Igarliak, eleizatik urrin atsekabez ta Jauna'ren Etxia berrikusteko garrez egualarik, idatzi ebana.

**Abadiak.** Aitia'ren, eta Semia'ren, eta Espiritu Santua'ren izenez. — Olantxe. Elduko naz Jainkua'ren oparrira.

**Mesa-laguntzalliak.** Neure gaste aroko alaya dan Jainkua'gana.

**A.** Zuzentza egidazu, Jauna, ta aldeztu (defendidu) dongiekandik ene auzia; gizon malmutz - okerretik zaindu nagizu.

**M.** Izanik Zeu, ¡o Jainkua, ene sendatza ¿zegaitik jaurti nozu? ta ze dalata nabil gogoillun areriopian?

**A.** Indazu Zeure argija ta Zeure egia. Eurok zuzenduko nabe ta eruango

nabe Zeure Mendi Deunera ta Zeure Biztokietara.

**M.** Eta elduko naz Jaungoikua'ren



Mesiaren asiera

oparrira; neure gasteroko alaya dan Jaun - Goikua'gana.

**A.** Dantzereskin - soñuban goralduko zaitut, o Jauna, o ene Jaungoikua:

¿zegaitik ago larri, ene gogoa, ta zegaitik artegatzen nauk?

**M.** Itxaron egik Jauna'tzaz bada ondiño goralduko dok: ¡ene Eroslia ta ene Jaungoikua!

**A.** Aintza Aita'ri, eta Semia'ri, eta Espiritu Santua'ri.

**M.** Len lez, orain, beti ta amaibako egunetan. Olantxe.

**A.** Elduko naz Jaungoikua'ren oparrira.

**M.** Nire gasteroko alaya dan Jaungoikua'gana.

**A.** Gure laguntza Jauna'ren izenian.

**M.** Zeru ta ludia edo munduba egin ebazanarenian.

**A.** Nik pekatari aunek...

**M.** Jaungoiko Gusti - Alduna errukitu bekizu ta zeure pekatubak parkatuta, bizitz betikorrera eruan zaizala.

**A.** Olantxe.

**M.** Nik, pekatari aunek, autortzen dautzat Jaungoiko Gusti - Aldunari, Andra Maria Birjiña Zorionekuari, Deun Mikel Goi-angerubari, Deun Juan Bautistia'ri, Deun Pedro ta Deun Paulo

Apostoluei, Santu gustiei ta zeuri, ene aba orri, pekaturik asko egin dodala gogoz, itzez eta egitez; neure erruz, neure erruz, neure erru andiz. Au gaitik eskatzen dautsat Andra Maria Birjiña Zorionekuari, Deun Mikel Goi-angeruari, Deun Juan Bautistia'ri, Deun Pedro ta Deun Paulo Apostoluei, Santu gustiei ta zeuri, ene aba orri, nire aldez otoi-egin dagiozula gure Jaun eta Jaun-Goikua'ri.

**A.** Jainko Gusti-Alduna errukitu bekizube, ta zeuon pekatuok parkatuta, betiko bizitzara eruan zaizela.

**M.** Olantxe.

**A.** Jaun Gusti - Aldun eta errukiorrak geure pekatuen nekazka, parkamen eta azkespena bemosku.

**M.** Olantxe.

**A.** O Jauna, zeure arpegia geugana itzulita biztuko gozuz.

**M.** Eta zure erria Zeugan poztuko da.

**A.** Erakuskuzu, Jauna, zeure errukia.

**M.** Eta zeure Salbatzallia emoskuzu.

**A.** Jauna, entzun nire otoya.

**M.** Eta nire oyuba zeugana eldu bedi.
**A.** Jauna zeuekin.
**M.** Eta zeure goguaz.

Abadiak, oparrira igonda, diño:

## Otoya

Kendu egiskuzuz arren, Jauna, geure gaiztokeriak zeure elexako toki santuan gogo garbiaz sartzia irabazi daigun. Olantxe.

Euren gorpuzkiñak emen dagozan santuen *(Abadiak mun egiten dautso oparriari)* eta beste zorioneko gustien irebaziakaitik, arren Jauna, nire pekatuak azketsi. Olantxe.

Oparriaren eskumaldera yoanda Aitea'ren egiñaz diño:

Zuk, Jauna, gari eder-ederraz janaritzen gozuz, ta zeure zauriei darioen eztiaz asetzen gaituzu. Poztu ta goretsi Jainko geure laguntzallia: pozez ta santsoka Jakob'en Jaungoikua goratu. *(80'g. eresitik edo salmotik artuba).* Gloria Aita'ri ta Semia'ri ta Espiritu Santuari. Zuk, Jauna,

[library stamp]

gari eder-ederraz janaritzen gozuz ta zeure zauriei dariuen eztiaz aseten gaituzu.

*Kyrie - eleison.*=Jauna erruki zakiguz. (Iru bidar).

*Christe-eleison.*=Kristo erruki zakiguz. (Iru bidar).

*Kyrie - eleison.*=Jauna erruki zakiguz. (Iru bidar).

## Aintza edo Gloria

Goyetan Jainkua'ri Aintza, ta beyan gentza gogo zindodun gizonai. Goraltzen zaitugu; onesten zaitugu; agurtzen zaitugu: aintzaltzen zaitugu. Eskarrak egiten dautzuguz zeure aintza andiatzaz. Jaun Jainko, Zeruko errege, Aita Jaungoiko gustialduna. Seme bakar Jesukristo Jaun Jainkoa, Jainkoa'ren Bildotsa, Aita'ren Semia: ludiko pekatubak kentzen dozuzana, erruki zakiguz; ludiko pekatubak kentzen dozuzana abetaldu gure otoya. Aita'ren eskumatik zagozana, erruki zakiguz. Zeu bakarrik zara Deuna -ta, Zeu bakarrik Jauna, Zeu bakarrik

gorena, Jesukristo, Espiritu Santuba'z Aita'ren atsegintzan. Olantxe.

**A.** Jauna zeuekin.

**M.** Eta zeure goguaz.

## Otoyak Sakramentu Deun - Deunari

Sakramentu begiragarripian zeure nekaldiaren gomutakia itxi dauskuzun Jauna: egikezu, arren, zeure Gorputz ta Odolaren eskutapen deunak gurtu daiguzala geure burubetan beti zeure Eroskundiaren alorta edo frutua igarten dogularik. O Jauna, Jainko zaranez Aita Jainko ta Espiritu Santua'z batera amaibako egunetan bixi zarana. Olantxe.

## Andra Maria'ri

Emoskuzu, arren, Jauna, zeure otseñai (jopubai) gogo ta gorputzeko osasun iraunkorra ta Maria beti Birjiña zoriontsubaren otoyakaitik bizitza aonetako atsekabiak aldendu ta betiko bixitzako poza iguzu.

## Deunen bitartekotasuna eskatzeko

Zaindu gagizuz, arren Jauna, gogo ta gorputzeko galbide gustietatik: eta Maria beti Birjiña Zoriontsuba, Pedro eta Paulo Deun zeure Apostolu zoriontsubak, Iñazio Deun zoriontsuba ta beste Deunak bitarteko diralarik, osasuna ta bakia errukiz emoskuzuz; ezpiar, ta irakasdeunge gustiak ondatuta, zeure Elexeak azkatasun osuaz arren dagitzun, Jesukristo zeure Seme ta geure Jaun'agaitik. Olantxe.

## Epistolia

Paulo Deunak Korinto'arrei bidaldutako idazki edo kartia.

ANAYAK: Nik Jauna'gandik ikasi neban ba, zubei irakatsi dautzubedana ta da: Jesus Jaunak, ain dollorki salduko eben gaban bertan, ogia artu eban, eta eskarrak eginda, zatitu eban, esanik: ARTU TA JAN; AUXE DA NIRE GORPUTZA, ZUBEN ONEZ EMONA IXANGO DANA: EGIKEZUBE AU NIRE GOMUTAZ. Eta bardin, apaldu ta gero,

edontzia (kalixa) be artu eban esanik: EDONTZI AU LEGE BARRIA DA NEURE ODOLIAN. AU, EGINGO DOZUBEN EDONOZ NEURE GOMUTAZ EGIKEZUBE. Ba Ogi au jan eta edontzi (kaliz) onetatik edango dozuben edonoz, Jaunaren eriotza iragarriko dozube, etorriko danarte. Barriz, deungaro Ogi au jan edo Jaun'aren edontzitik edango dauna, Jaun'aren Gorputz eta Odolaren errudun izango da. Olan, ba, gizonak bere buruba aztertu begi lenago, ta gero Ogi atatik jan begi ta edontzi atatik edan begi. Bada deungaro jan eta edango daunak, bere burubaren eriotza jan eta edango dau: Jaunaren Gorputza berezi edo zeindu ez daulako.

**M.** Eskerrak Jaungoikua'ri.

## Graduala

(Psalmo CXLIV).

Jauna, izaki gustiak, zugan begiak jartzen dituez laguntasun itxaroz: eta Zuk emoten dautsezube, adionez, biar daben janaria. Zeure eskuba idigitzen dozu, ta bizidun gustiak onetsiten edo

bedeinkatzen dozuz. *Aleluya, aleluya.* Nire Aragia benetan da janaria, ta nire Odola benetan da edaria. Nire Aragia jan eta Nire Odola edango dauna Ni'gan dirau, ta Nik beragan. *Aleluya.*

## Ebanjeliua

Abadiak oparri erdian makurtuta diño:

Isaia's igarliaren ezpanak txingar goriaz garbitu zenduzan, Jaun altsuba, garbitu nire biotz ta ezpanak be: zeure erruki begikoz olantxe ni garbituta, zeure Ebanjeliua duindo iragarri dagikedantzat: Jesukristo gure Jauna'gaitik Olantxe.

Zutiñik:

**A.** Jauna zubekaz.

**M.** Eta zeure goguaz.

**A.** San Juan'en Ebanjelioaren jarraya.

**M.** Aintza zuri, Jauna.

**A.** Aldi atan: Judar ozteari iñotson Jesus'ek: Nire Aragia benetan da janaria, ta Nire Odola benetan da edaria Nire Aragia jan eta Odola edango dauna Nigan dirau, ta Nik beragan. Ni, Aita biziak

bialdu ninduban lez, ta Neu Aita'gaz bizi nazan lez, Ni jaten nauna be Neu'tzaz biziko da: Auxe da Zerutik jatsiriko Ogia. Ez zuben asabak lez, mana jan da, il ziran: Ogi au jango dauna beti biziko da.

**M.** Omen, Zeuri, Kristo.

**A.** Ebanjelioko itzez ezabatu edo borrau bitez gure dongakeriak.

## Ziñeskintza edo Kredua

Ziñesten dot Jaungoiko bakar, Aita gustiz altsua, zeru ta ludi, agiri ta agiri ez diran gauza gustien Egillia'gan. Eta Jainkua'ren Seme bakar, Jesukristo Jaunagan. Eta Aita'gandik jayuba aldi gustien aurretik. Jainko'tik Jainko. Argitik Argi. Jainko egiazkotik Jainko egiazkua. Sortuba, ez egiña; Aita'gaz izakide: gauza gustiak bere bidez egin dira. Gu, gizonokaitik eta gure gaizkakundiagaitik Goyetatik jatsi zana. Espiritu Santua'ren bidez, Andra Maria Errubakotik Aragia artu eban: eta Gizondu zan. Gugaitik gurutzetua be izanik, Pontzio Pilatos'en agin-

dupian jasan edo padezidu eban, eta lurralduba izan zan. Eta Liburu Santuba'k ziñuen lez, irugarren egunian biztu zan, eta zerura igon zan. Eta Aita'ren eskumaldetik jarrita dago. Eta barriro etorriko da aintzaz edo gloriaz, bizi eta illak epaitutzeko. Eta bere bakalderriak amairik ez dau izango. Espiritu Santu Jaun biziemolliagan ziñesten dot: Aita ta Semiagandik datorrena. Aita ta Semia'z batian gurtu ta goratuba. Igarle-bidez itz egin ebana. Elexa bat Deun edo Santa, Katolika ta Apostolotarra ziñesten dot. Pekatuak parkatzeko Batio bakarragan ziñesten dot. Itxoten dot illen berbizitza. Eta geroko bizitzia. Olantxe.

**A.** Jauna zubekin.

**M.** Eta zure goguakin.

## Eskintzaldia

Belauniko nai zutunik.

### Otoya

Jaupariak intzentzu ta ogiak Jainkua'ri eskintzen dautsoez: izan beitez ba deunak

edo santuak euren Jainkua'tzazko, ta ez begie bere izena orbandu.

Abadiak, patenia ogiaz artuta, diño:

Artu egizu, Aita Deun, Jainko gustialdun, betikor orrek, nik, zure mendeko duin-ez onek eskintzen dautzudan orban bageko opari au, neure oben, irain eta nagikeri asko ta askoren ordez, emen dagozan gustijen aldez, baita bizi ta il diran kistar gustijen aldez, niretzat eta arentzat, betiko bizitzarako sendabidia izan dedintzat. Olantxe.

Onetsiten dau ardauaz naztuko daun ura diñola:

Giza-izate duintasuna (ala nagositasuna) bikainki eraldu ta bikañago barriztau zendun Jaunkuoi: ura ta ardau naste onen eskutapenagaitik emoguzu, Jesukristo, zure Seme ta gure Jauna, gure gizakide egin zan lez, bere Jainkotasunaren izakide izan gaitezala: Jainko danez Aita'z ta Espiritu Santua'z beti-beti bizi dana. Olantxe.

Edontzia eskintzian diño abadiak:

Osásun - edontzia eskintzen dautzugu Jauna, zeure erruki eske usain gozoz zeure Eregitasun aurreragiño igon daiten

geure ta guztien gaizkatze edo salbaziñorako. Olantxe.

Makurtuta diño abadiak:



ESKINTZALDIA

Gogo apal eta biotz garbatuok abetaldu gagizuz, Jauna, ta zeure atsegiñez begigu gaur zure aurrian dagigun opari au.

Eskiñi dituan ogi - ardauak onetsiten ditu abadiak, esanaz:

Erdu, o Jainko donetzalle, gustialdun, betikor ori, ta onetsi egizu zeure izen deunaren omenez gertautako opari au.

Abadiak, Epistola aldera juanik, eta eskubak garbitu bitartian, diño:

Errubakuakaz eskubak garbituko dodaz, eta zure oparria inguratuko dot, Jauna, omen diadarraz adirazteko ta zeure egingurenak iragarteko.

Jauna, zeure etxe-edertasuna maite izan dot, eta zeure aintza dagon tokia.

Ez, Jauna, ez ene gogoa galdu gaiztuekin: ezta ene bizitza be gizon odoltzaliekin.

Euren eskubak dongakeriz beteta dagoz: eta euren eskumia erostekeriz txiltxil dago.

Baña ni neure errubakotasunian ibilli izan naz: gaizkatu edo salbau naizu, ta erruki zakit.

Ene oña zuzen ibilli da; batzarretan onetsiko zaitut Jauna.

Aintza Aita'ri, Semia'ri ta Espiritu Santua'ri. Amaibako egunetan. Olantxe.

Abadiak, oparri erdian makurtuta diño:

Irukoitz Deun edo Santuba, artu Jesukristo gure Jauna'ren Nekaldi, Biztute ta Igokundiaren gomutaz eskintzen dautzugun opari au. Eta Andra Mari beti errubako zoriontsu, deun Juan Batiatzalle, Beldu edo Apostolu deun Pedro ta Paulo, ta aonen (oparrian euren gorpuzkiñak dagozanen) ta Santu guztien omenez: eurok goraltzeko ta geu gaizkatzeko edo salbatzeko izan dedin, eta lurrian euren gomutia gurtutzen dogun ezkero, zeruan gure aldez otoi dagien gure Jaun Jesukristo berberagaitik. Olantxe.

Abadiak errirantz jeurtauta diño:

Anai oyek otoi egizue: nire ta zuben opari au Jainko Aita gustiz altsubari atsegin izan dakion.

**M.** Artu begi Jauna'k zure eskutik opari au bere izenaren goraltze ta aintzaz edo gloriaz; baita gure ta bere Elexa deun gustiaren onuraz be. Olantxe.

Ixilliko otoyak.

## Gure Jaunari

Emoyozuz, arren, Jauna, zeure Elexia'ri

guk eskiñiriko emaitzetan irudituta dagozan batasun eta bake-ondasunak: Jainko danez Zeugaz, Espiritu Santu batasunian beti-beti bizi dan Jesukristo gure Jaunagaitik. Olantxe.

## Andra Maria'ri

Jauna, zeure errukiz, ta Andra Maria beti Errubako zoriontsubaren bitartez, opari au izan bekigu oraingo ta betiko zorun et ı bakerako.

## Santuen bitartekotasuna

O Jainko Eroslioi, adi gagizuz: Oteuna edo ogi deunaren indarrez, gorputz-gogoko arerio gustietatik żaindu gaizuzan, bizitz aunetan zure goi-eskarra ta gerokoan zure atsedena emoten dauskuzula: Jainko danez zeugaz, Espiritu Santu batasunian, beti-beti bizi dan Jesukristo gure Jaunagaitik.

Zutunik edo belaunbiko.

## Jaupaurrea

**A.** Amaibako egunetan.

**M.** Olantxe.

**A.** Jauna zubekin.

**M.** Eta zeure gogoakin.

**A.** Gora zuben biotzak.

**M.** Jauna'gana jasota daukoguz.

**A.** Jainko geure Jauna' ri eskarrik asko dagiogun.

**M.** Duin eta zuzen da.

**A.** Ziñez, duin eta zuzena, zorra ta osasunkor da, edonoz ta edonun zuri Jaun Deun, Aita Altsu, Jainko betikuorri eskerrak egitia. Bada Jainko - Semia'ren Gizakunde-eskutapenez, gure gogo - begietan dizdiz egin dau zure anditasun argi-izpi barriak: Jainkua ikusteko eran ezautu ta, ikusten ez diranen maitasunera Berak eroan gaizan. Ta alan ba, Aingeru ta Goyaingeru, Goyaulkitza, ta Jaunaltza, ta Goiko Gudarozte edo ejerzituko Gudaritza gustiaz, Zure aintzari ereserkia abesten dautsogu, eten bage, diñogularik:

Belaunbiko.

Deuna, Deuna, Deuna gudaroztien Jainko, Jauna: Zeru-lurrak zure aintzaz beteta dagoz. Aintza goyetan. Donetsia Jauna'ren izenez datorrena. Aintza goyetan.

## Jaupa araua

Zuri ba, o Aita samurroi, Jesukristo zure Seme ta gure Jaunaren bidez, arren apalki eskatzen dautzugu, abetaldu ta onetsi daizuzala emaitz † onek, eskintz † onek, orban bako opari † deun onek; lenen, zure Eleiz deun Katolikoa'gaitik eskintzen dautzuguzalarik: berau aldeztu, batu ta zuzendu dagizuntzat ludi osoan; zure otsein, gure Aita Santu, Gotzain eta agintari batez, ta ziñeste Katoliko ta Apostoluenai zuzen eutsiten dautsenekaz.

## Bizien aldezko otoya

Gomutau, Jauna, zure otsein-mirabietzaz.

Jaupariak, eskuak batu, ta berariz jaritxi nai dauna eskatzen dau. Zeuk be eskatu gura dozuna. Gero darrai:

Ta emen dagozan gustietzaz; onen zi-

ñesmen eta eraskuna ezautzen dituzu ba; ta eurokaitik eskintzen dautzugu: edo - ta eurok, berberok eskintzen dautzube zure goraltzeko opari au, euron burubakaitik, eta euron artekoakaitik: euren gogoak erosteko, ta euren gaizkatze *(salbaziño)* ta iraupenaren ustez, ta Zeu, Jainko betikor, bizi, ta egi orren eskubetan itxiten dabez euren gurariak.

Bazkun berberan alkartuta, ta aurrenen Jesukristo geure Jainko ta Jauna'ren Ama beti Errubako ta zoriontsuba agurtzen dogula, baita Beldu ta ziñopa edo Martiri zorioneko Pedro ta Paulo, Andres, Santiago, Pilipe, Bartolome, Matio, Simon ta Tadeo: Lino, Keleto, Kelemente, Sisto, Kornelio, Zipriano, Lorentzo, Krisogono, Juan eta Paulo, Kosme ta Damian eta zorioneko gustienakaz, euren irabazi ta otoiz, arren, egiguzu gozopen gustietan zure babesaren laguntza izan daigula: Kristo gure Jauna berberagaitik. Olantxe.

Jaupariak opari ganian eskuak zabal dituala diño:

Artu egizu ba, Jauna, legunkiro geure

ez ezen, zeure sendi gustiaren menbetasun-opari au; ta gure biztaldi aunetako egunak zure bakez igaro erasi, ta betiko galtzetik aldendu, ta zeuk aukeratutako artaldekoen artian sartu gagizuz. Jesukristo gure Jaunagaitik. Olantxe

Ta opari au, Zeuk, Jainko orrek, onetsi † baitetsi † sendetsi † bidezko ta gogoko dagizula, eskatzen dautzugu; guretzako, zure Seme maite-maite Jesukristo gure Jaunaren gorputz † ta odol † egin dedintzat.

Beronek ba, nekauste aurreko egunian, ogia bere esku deun eta gurgarrietan artu eban, eta begiak gora, Zeugana, bere Aita gustialdun orrengana jasota, Zuri eskerrak eginda, onetsi †, zatitu, ta ikasliei emon eutsen, esanik: Artu ta jan gustiok onetzaz: AUXE DA BA NEURE GORPUTZA.

Era beran, apaldu ondoren, edontzi bikaiñau bere esku deun eta gurgarrietan artu eban, eta orobat, Zeuri eskerrak eginda, onetsi †, ta ikasliei emon eutsen esanik: Edan egizue onetzaz gustiok; AUXE DA BA NEURE ODOL EDONTZIA, ZIÑALBEN (testa-

mentu) BARRI TA BETIKORRARENA (ziñes-gaya) ZUBEN ETA ASKOREN ALDEZ PEKATUAK PARKATZEKO IZURIKO DANA.



OTEUNTZIA (Consagraziñua)

Gauza onek egingo dozuezan bakoitzean, neure gomutaz egikezuez.

Beraz, Jauna, guk, zure otseñok, baita zure erri deunak be, bai zure Seme Jesu-

kristo gure Jaunaren nekauste zoruntsu gomutaz, bai bere illen arteko berbizte ta zeruetara igokunde aintzatsuaren oroiz, zure Nagositasun eregiari eskintzen dautsogu zure emaitzetatik opari † garbia, opari † deuna, opari † orban bakoa, bizitz betikorreko ogi † deuna, ta betiko gaizkatzeko † edontzia.

Begiratu, arren, Jauna, emaitz onek abegi bigun eta argiz, ta abetaldu egizuz, Abel zure ume zuzenaren emaitzak, eta Abarran gure asabaren oparia abetaldu zenduzan lez; ta Melkisedek zure Jaupari Nagosiak eskiñi eutzuna lez; opari deuna, eskintz orban bagea.

Jaupariak makurtuta diño:

Arren, bai, arren, Jainko altsuoi, eroan eragizuz opari onek zure aingeru deunaren eskuz zeure oparri gurenera, zure Jainkozko Nagositasun aurrera; oparri onetatik zure Semiaren gor † putz ta odol † deun - deuna artuko dogun gustiok, goi oneskun gustiz ta eskarrez beteak izan gaitezantzat. Jesukristo gure Jaun berberagaitik. Olantxe.

# Illen aldezko Otoya

Gomutau zaite, Jauna, baita gure aurreztik ziñesmen ikurra eroan, eta oin bakezko lotan dagozan zure otsein-mirabietzaz.

Emen jaupariak eskuak batu, ta berak nai daun illen aldez otoi ixilla egiten dau. Zeuk be, zeure ildakuen aldez otoi-egikezu. Gero eskuak zabal diño:

Onei, Jauna, ta Jesukristo'gan atsedentzen diran gustiei, atsegin, argi ta bake tokia emon dayezula, arren eskatzen dautzugu, Jesukisto berberagaitik. Olantxe.

Jaupariak bularra joten dau esaten:

Baita, guk, pekatariok be zure otseñok, zure errukiaren ugaritasunez itxoten dogu alde zerbait ta laguntza izango dogula zure Beldu ta ziñopa: Juan, Esteban, Matias, Bernabe, Iñizio, Alejandro, Martzeliño, Pedro, Pelizita, Perpetua, Ageda, Luzia, Ines, Zizilia ta Anastasia ta zorundun gustiekaz: onen artian artu gaizuzala eskatzen dautzugu, ez irabazien neurtzalle zaranez, pekatuen parkatzalle zaranez baño. Jesukristo gure Jaunagaitik.

Beronen bidez ondasun gusti onek beti sorrerazi, done † tu, biz † tu, one † tsi, ta emoten dauskuzuz.

Belaunikotuta, oteunaz edo ostia santubaz bost gurutza egiten ditu diñola:

Berau † gaitik, berau † gaz ta berau † gan, zeuri Jainko Aita † gustialdunorri, Espiritu † Santubaz batian omen eta aintza oro dagokitzu.

Eta goratxubago diño:

— Amaibako egunetan

**M.** Olantxe.

## Otoya

Agintza osasunkorrez uartuta, ta Jainkozko irakatziz zuzenduta, azartzen gara esaten: Geure Aita Goikua, zeure izena donetsi bedi, betorkigu zeure erreñua, egin bedi zeure naya zeruan lez lurrian be. Emoguzu gaur be eguneroko geure ogia, parkatu geure zorrak geuk geure zordunenak parkatzen dautzeguzan lez, eta ez itxi zirikaldian jausten.

**M.** Baña gatxetik yagon gagizuz.

**A.** Olantxe. Jagon gagizuz, arren Jauna, oraingo, lengo ta geroko gaitz gustietatik; eta Maria Jainkuaren Ama, beti orbanbako zoriontsuba, zeure Beldu zorioneko Pedro, Paulo ta Andres eta deun gustien bitartez, emoguzu emeki geure biztaldian bakia; zeure errukiaren laguntzaz beti pekatu bage ta ikeratik aldenduta bizi gaitezantzat.

Belaunikotzen da. Oteuna erdibitzen dau.

Zeure Seme Jesukisto gure Jaunagaitik. erdi bateri kentzen dautso satitxuba). Jainko danez zeugaz bizi dana Espiritu Santubaz batian, amaibako egunetan.

**M.** Olantxe.

**A.** Jaunaren bakia beti zuekin izan bedi.

**M.** Ta zeure goguakin.

(Oteun zatitxuba edontzian isten dau esanik).

**A.** Jesukristo gure Jauna'ren gorputz-odol nastute ta doneskunde au geuk artzean, bizitza betikorrerako izan bekigu. Olantxe.

(Irutan bularra jota diño):

Ludi edo munduko pekatuak kentzen

dozuzan Jainkoa'ren bildots ori: erruki zakiguz.

Ludiko pekatuak kentzen dozuzan Jainkoa'ren bildots ori: erruki zakiguz.

Ludiko pekatuak kentzen dozuzan Jainkoa'ren bildots ori: bakea emoguzu.

Makurtuta diño Abadiak:

Zeure beldubei (apostoluei) bakia isten dautzuet, bakia damotzuet esan zeuntsen Jesukristo Jaunoi, nire dongakeriei ez begiratu, zeure Eleizia'ren ziñestiari baño; ta zeuk nai dozun lez baketu ta batu egizu. Jainko zaranez amai bako egunetan bizi zaran orrek. Olantxe.

Illen mesetan otoi ori isten da.

¡O Jesukisto Jaunoi, Jainko biziaren Seme oi, Aita'ren naiz, Espiritu Santua lagun, zure eriotzaz ludiari bizitza emon zeuntson oi: Zure gorputz ta odol deundeunarren neure deungakeri ta gaitz gustietatik begira nagizu: zure aginduai beti iratzita egon nadilla egizu: ta ez itxi Zugandik aldentzen. Jainko zaranez Aita Jainko berberaz ta Espiritu Santuaz aldi oro bizi zaran oi. Olantxe.

Zure gorputza artzera azartzen naz, Jesu Kisto Jaun oi, duin ez nazanarren: jaunartze au ez bekit izan neure epaitze ta onda-



JAUNARTZIA

tzerako; ezperen, zure errukiz, nire gogo ta gorputz zaintzerako, ta osasun iristeko. Jainko zaranez Aita Jainkoaz ta Espiritu Santuaz aldi oro bizi zaran oi. Olantxe.

Belaunikotu ta diño:

Zerutar ogia artu ta Jauna'ren izena deituko dot.

Makurtu ta bularra joten dau, esaten:

Jauna enaz ni duin, Zu nire etxian sartzeko, baña itz egizu, ta nire gogoa osatuko da. (Iru bider)

Jesukisto gure Jauna'ren gorputzak yagon begi ene gogua betiko bizitzarako.

Oteuna Artzen dau.

¿Zer emon neikio Jauna'ri, Berak niri egindako onegin ordez? Osasun-edontzia artuko dot, eta Jauna'ren izena deituko dot. Omenez deituko dautsot Jauna'ri, ta nere etsayetatik azke izango naz. Jesukisto gure Jauna'ren odolak yagon begi ene arimia betiko bizitzarako.

Edontzi deuna artzen dau.

Aboz artu dogun au, Jauna, gogo garbiz jan daigula; ta aldizko emaitz au betiko osakai egin bekigu.

Jauna, nik jan dodan zure gorputz au, ta nik edan dodan zure odol au, nire biotzari iratzi bekioz; ta sakramentu ain garbi ta deunez janaritu nazan ezkero, ezpedi nigan deungakeri-orban izpirik gelditu.

Amai bako egunetan bizi zaran oi. Olantxe.

Epistola aldera dua.

## Jaunartzaldia

Ogi au jan eta edontzi au edango dozuben edonoz, Jauna'ren eriotza adierazoko dozube berau etorri arte: Beraz, ogi au jan ala edontzi au dongaro edango daun edozein, Jauna'ren gorputz-odolaren errudun izango da.

**A.** Jauna zubekin.

**M.** Eta zure goguakin.

## Otoya Oteunari

Egizu arren, Jauna, zure gorputz-odol ederren oraingo artzian, aurreztik irudituta dagon jainkotasunaren betiko atsegiñez ase gaitezala: Jainko zaranez amaibako egunetan, Aita'gaz, ta Espiritu Santuaz bizi zaran Jainko Jaunoi.

**M.** Olantxe.

## Andra Maria'ri Otoya

Jauna, gure gaizkapen (salbaziño) soroskiak arturik; iguzu, Andre Mari zoruntsuaren omenez, zure Jaundasunari opari onek eskiñi dautsoguzanok, bere arduraz alde gustietan zainduak izan gaitezela.

## Deunen bitartekotasuna

Garbitu ta sendotu gaizala, Jauna, eskiñi dogun Sakramentu deunaren opari onek: eta Andre Mari, Jainkoa'ren Ama zoruntsua, Jose deun-zoruntsua, Pedro ta Paul beldu-deun - zoruntsuak, Iñaki deun zoruntsua, ta deun gustien bitartez, oben gustiz garbitu, ta zoritxarretik yabon gayezala, Jainko danez Zeu'gaz ta Espiritu Santuaz beti-beti bizi dan zure Seme ta gure Jaun Jesukisto berberagaitik.

**M.** Olantxe.
**A.** Jauna zubekin.
**M.** Eta zure goguakin.
**A.** Zuaze, mesia egin da. (edo esaten dau) Donetsi daigun Jauna.

**M.** Jainkua'ri eskerrak.

Altara erdian makurtuta diño Abadiak:

Atsegin bekitzu, o Irukoitz deuna, nire otsein-eskintz au; ta egizu arren, nik, ez duin onek, zure Nagositasunari eskiñiriko opari au, Zuretzat atsegarri, ta niretzat eta eskiñi dodan beste gustientzat, zure errukiz, asarre ibiña izan daitela: Jesukisto gure Jaunagaitik. Olantxe.

Jaupa aditzalleak onesten ditu.

Jainko gusti altsuak, Aita, Seme † ta Espiritu Santuak onetsi bizaize.

**M.** Olantxe.

**A.** Jauna zubekin.

**M.** Eta zure goguakin.

**A.** Joan Deuna'ren Goizpar (ebanjelio) asikaldia.

**M.** Aintza zuri, Jauna.

Itza (Autija) asikaldian zan, eta Itza Jainkua'gan zan, eta Jainko zan Itza. Au asikaldian Jainkua'gan zan. Gauza gustiak Berak egin ebazan, eta egiñiko gauzetatik ezer be etzan egin Bera bage. Bizitza Beragan zan, ta bizitza zan gizonen argia. Ta argi onek argi egiten dau illundietan,

eta illundiak ez eben artu. Izan zan Jainkoak bialdutako gizona, Juan eritxona. Au ziñaldari edo testigu etorri zan, argia ziñaltzeko, gustiak bere bidez ziñestu legientzat. Bera etzan argia, argia ziñaltzeko edo deklaratzeko bialduba baño. Itza ludi aonetara datorren edozein gizon argitzen daun argi egizkoa zan. Ludian eguan; eta ludia berak egiña zan, eta ludiak ezeban ezautu. Beriekana etorri zan, eta beriak ezeben abetaldu. Baña Bera abetaldu eben gustiei, onek dira bere izenez ziñesten dabenak, Jainkua'ren seme izatia emon eutsen: onek ez odoletik, ez aragiaren guratik, ez gizonaren guramenetik eztira jayoten, Jainkua'gandik baño. (Ementxe belaunbikotzen da) Eta Itza gizon egin zan eta geure artian bizi izan zan; eta geuk ikusi dogu bere aintza, Aita'ren Seme bakarrari dagokion aintza, Goi eskar edo grazia ta egiz betia.

**M.** Jainkua'ri eskerrak.

Mesa ondoren abadiak belaunbiko egiten dituen Otoyak, diraz: Lenengo esaten ditu iru *Agur Maria* ta *Salbia;* gero diño:

Jainkua'ren Ama deuna, geure aldez otoi egizu.

Jesus'en agintzariak jadesteko duin izan gaitezan.

## Otoya

Gure babesa ta indarra zaran Jainkuoi, biozperez begiratu yozu Zuri deika daukozun erriari, ta Jainkoa'ren Ama Sortze Garbi zoriontsua, ta bere Eskon Jose deuna, Pedro ta Paul beldu deun, eta beste deun gustien bitartez, errukiz ta onez aditu, pekatarien biurtzerako ta Eleiz Ama'ren azkatasun eta goraltzerako egiten dautzuguzan eskariak: Jesukisto, gure Jaun berberagaitik.

**M.** Olantxe.

**A.** Deun Mikel Goyangerua; gudaldian zaindu gagizuz: Etsayaren dongakeri ta malmuzkerietzazko yagolia izan zakiguz: Jainkua'k bezau begi, arren daskatzut: eta zuk, Goiko gudarozte edo ejertzituen Lendari orrek, Satanas ta arimen ondatzerako ludian dabiltzan beste

etsai gaizkillak, jainkotar eskubidez, gaiztoki edo inpernuetan amildu egikezuz.

℟. Olantxe.

Bakotxian 300 eguneko parkamenak. (Urtarrilla 6'gn. Dagonilla 20'gn. 1884). Pio X'gk. gura eban geitzia ondorengo otoi laburra:

Jesus - Biotz Deun - Deuna, erruki zakiguz. (Irutan esaten dabe).

Saspi urte ta saspi berrogeiko parkamenak. (1904'gn. Bagilla 14'an.



# Autorkintzea

1ª. Autorkintza edo konpesiñua gizonentzako biar-biarreko sakramentua, egoki-egokia, jainkozko ta gizakorra da.

2.ª Bere onurarik andiena da batiatu ezkero pekatu astun eta ariñak kentzia.

3.ª Pekatu astuna da Jainkua'ri egiñiko irañа, bere aginduren bat astunez ausita.

4.ª Pekatu astuna da gatxik andiena, Jainkua'ren iraña dalako; Jainkoa'ren arerio egiten gaitu; arimako grazia kentzen dausku; betiko zoriona galdu eragin; gaiztokira edo inpernura garuaz, keskak sortzen dauskuz, ta iñoiz, alanbe oitu ezkero, bizitza aonetan zorigaitz asko dakarskuz.

5.ª Pekatu edo oben ariña, astuna baxen kaltegiña izan ez arren, txar-txarra da; Jainko arerio ez gaitu egiten; grazia kendu bez; zori-

ona galdu erain bez; ezta gaiztokira eruan be, baña Jainkua'k dauskun maitasuna otzitu ta pekatu astunerako bide urrian iminten gaitu ta garbitoki ta beste oñaze batzuek ezartzen dauskuz.

6.ª Oben astuna arimiaren eriotza da.

7.ª Oben ariña arimiaren gexua da.

8.ª Oben astuna autorkintzaz kentzen da.

9.ª Baita maitasun - garbai edo damuaz be kentzen da, baña geruago autortzeko erabagia biar da.

10.ª Oben ariña autorkintza ta Jaunartzaz kentzen da, ta autorkintza bako garbai edo damuaz be bai.

11.ª Autorkintza Jesukisto'k bere odolaz Aita'gandik iritxi euskun sakramentu bikaña da.

12.ª Autorkintzak pekatuak parkatuaz ganera onura asko dakarskuz:

13.ª Autor-entzule edo konpesoriai ziarretara begiratzen dautsoe sarri, gauzak ondo ausnartzen eztituelako, baña beragan itxi dausku Jesukisto'k Itunlari zuzen, ixilla ta dubakoa.

Beti gizabidetik garuazan irakaslia.

Gu adoretu ta oneratuko gaituban aita ona.

Gure utsegite ta girñak osatzeko osalaria.

Aizkide barruko, zintzo, errukior ta sakatua.

Beti azkatzen gaituban epaikari ona.

14.ª Autorentzulia aingerua baño gizona izatia obe da, beriagandik obeto ezautuko daulako ene biotza zer dan.

15.ª Ziñesbakua ba'ziña be, autorentzule

edo konpesoria ongiña lekitzu, ziñesgaldubak eurak diñoenez.

16.ª Sarri autortzen diranak, nekez dongatuko dira, deungatzen ba'dira be, onduko dira.

17.ª Dongak diranak edo izan gura dabenak, autorkintza isten dabe: autorkintziari ezin eutsin.

18.ª Ondo autortzeko biar dozuz: LENENGO-Aurreztik gogoa aztertu. BIGARREN, Oben egiñaz garbatu. IRUGARREN, Obenik ez egiteko erabagi. LAUGARREN, Oben edo pekatu astun gustiak esan autorentzuliari. BOSKARREN, Emoniko penitentzia edo nekia egin.

19.ª Azterkuntza arduraz egin biar da; ez baña artegaz, ez da ba burua austeko ipiñia; alegindu arren, zeozer aiztu ba-yatzu ez jaramonik egin.

20.ª Oraintsu autortu ba'zara, lenengo azterbidia dagokitsu. Aspaldian autortu ezpazara bigarrena.

21.ª Garbaya edo damua da, ainbeste maite gaituan, orrenbeste on egin dauskun, Jainko on utsa iraindu dogulako tamala: edota emengo ala besteko, adibidez, gaiztokiko (inpernuko) bere zigorren bildurrez, edo pekatuaren ezaintasunez sortzen dan tamala.

22.ª Erabagia da asmo sendua geyago pekaturik ez egiteko ta galbidietatik igesteko.

23.ª Oben astunak baño autortzeko beste bearrik eztago; oben ariñak autortu edo ez, nai dan lez.

24.ª Bein ondo autortu ezkero, barriro autortu bearrik ez dago. Nai izan ezkero sarriago autortu legikez.

25.ª Naikua da pekatuaren una ta bera aldatzen daben zertzeladak autortzia, bere egikeria ta beste junetorriak agertzeke.

26.ª Arduraz aztertuta gero aiztu yatzuna, parkatuta dago; ta autorkuntza ostian gogoratu arren, Jaunartu zengike, urrenengoan autortzeko lagata.

27.ª Pekatu astun mueta bakotxeko zenbakia edo numerua esan biar da, al izan ezkero.

28.ª Pekatuak astuna izateko biar ditu: 1.º Pekatu-geya astuna izan edo egikeran astuntzat euki daitela. 2'gn. Argiro ezautu, egitera duana txar-txarra dala. 3'gn. Jabetasun osoa euki, gauza txarra egin edo ez egiteko. Iru baldintzetatik batek uts egin ezkero, pekatua ezta astuna izango.

29.ª Nai ezta edo gurari oso barik, gustiz uartzeke ez ustez, amesetan ala erdiamesetan, edo senetik urtenda, egiten dana, ezta pekatu astuna.

30.ª Zerbait eginda gero, ez baño egin aurretik, uartzen ba'dozu pekatu dala, ez dozu pekaturik egin, autortu bearrik be ez dozu.

31.ª Ezbaiko pekatua autortu biarrik ezdozu; autortzia egoki danarren. Ez-baya izan leiteke, egin ete dozun ala ez, pekatu astuna ala ariña ete da, eta autortu ete dozun a la eztzaz-

kua; eta iruretatik baten be eztozu autortu biarr ik. Baña, badezpada, bestiak autortzian biotzez garbatu zaitez ez jakin eta aizturikuekaz be.

32.ª Lotsaz edo nolabait pekatu astuna autortzeka itxi ezkero, ondorengoko autorkintza gustiak txarrak dira; ta biartuta dago gustiak barristutzeko ta pekatua itxi ebanetik barriro autortzeko, itxi ebana ta orduban eukazanak.

33.ª Zorakeria da lotsaz pekatuak istia. Autorentzuliaz ustetsuago edo pijauago ta berak leun eta maitiago artuko zaitu; autorentzuliari arritzekorik ezin esan zeinkio. Ez itxi iñoiz lotsaz pekatua, bada asko jasan edo supridu biarko dozu, ta ibilli-ta-ibilli, esan biarko; itxiago ta neketsuago izango yatzu, ta edo esan, edo betiko ondatu.

34.ª Autorkintza ona egiteko eztago *Ni pekataria* ez *Neure Jesukisto Jauna* esan biarrik, ezta autortzen zengozanian garbaya edo damua susmau biarrik be; naikua da lenago, egun batzuk aurretik izanarren be, damu izatia, ordutik pekatu astunik egin ezik, naita autorkintza aldian garbayaz gogoratu ez. Baña obe da autorkuntza - uneko garbaya.

## Autortzeko gerkuna

### Otoya

Gustialtsu ta betikor zaran Jaunkuoi, garbai garan oi, parkatu eiguzu; Zeuri eskariz gagozanentzat biozperia izan zakiguz, ta zure izen deuna apalik deitzen dogunontzat sendagai onuratsua izango yakun goi-eskarra, arren, emoguzu: Gure gaiztakeriak autortzen ditugu, ezautzen doguzan giñoan: zure aurrean, auspez geure pekatuetzaz negar egiten dogu, ta gogoz ta apalik zure errukia eskatzen dautzugu; ta zure izenaren omenez iguzu, autorkuntzako sakramentura, gure obenen parkaziñorako, eltzen garanok, arimako osasuna ta gorputzeko babesa iritxi daigula: Kisto gure Jauna'gaitik. Olantxe.

Jauna, ez dozu deungiaren eriotzik nai, bere deungakerietzaz garbai daitela baño; begiratu yozu errukiz gure izatiaren argalkeriari, ta parkaziño billa eltzen garan autorkintzan, gure gaizkerien azkitza edo absoluziñoa ta garbai-saria iristeko izan bekigu. Jesukisto gure Jauna'gaitik. Olantxe.

## Gogo - azterkuna

UARRA. — Azterbide bi ipinten doguz. Bata sarri autortzen diranentzat. Egoki litzake kistarrak astero autortzea, edo sarriago oben astunik egin ezkero. Bigarrena, nekezago autortu edo autorkuntzak barriztau, edo zietzago gogoa aztertu nai dabenentzat.

## Gertatzeko Otoya

¡Biotzak aztertu ta gizonen gogo-barrenak ikusten dituzun ene Jaun eta Jainkuoi! nere gogoa zintzo aztertu ta benetan ezautzeko biar dodan argia emodazu, neure deungakeri ta oben gustiak begiztu, ziero autortu ta bide oneratu ezkero, ludi onetan zure parkaziñoa ta goi-eskarra, ta goyan betiko zoruna irabazi dagidantzat. Jesukisto gure Jauna'gaitik. Olantxe.

## Lenengo Azterbidea

—¿Pekatu astunik edo astunera eltzen dan ariñik egin ete dozu?

LENENGO-AGINDUA.— Jainkoa'tzazko iñar-

kunak (ejerziziuak) ondo egin dozuz?—Eleiza'ren aurka zerbait esan ala irakurri dozu?—Erlejiño bageko lagunik euki, edo orrelako batzarren baten sartuta zagoz? — Izparringi edo beste irakurgei deunge, edo satarrik irakurten ete dozu? — Aztikerietan ziñestu, edo aztiekana galdetzen juan zara?

BIGARREN AGINDUA. — Zin edo juramenturik egin ete dozu? — Jainkoa'ren edo Deunen aurka biraorik esan ete dozu? — Jainkoa'ri egiñiko eskañak bete ete dozuz?

IRUGARREN AGINDUA.—Igande ta jayegunetan mesa osua entzun dozu? — ¿Ganoraz? — Lan egin dozu, biar izanik bage? —Menpekoai erain?

LAUGARREN AGINDUA. — *Seme alabak.* — Gurasoak lotsa izan, aginduak egin, zaindu ta janaritu dozuz?— *Gurasoa.*— Seme alabai kistar-ikastia irakatsi, zuzendu, zigortu, zaindu dituzu?—Ala ikaspide txarra emon, leusindu, gura dabena eiten itxi, euren eskubidiei jaurki, galtzeko zorietan ipiñi edo laga, ta lagun txarrakaz itxi?—

*Eskondua.* — Zintzoa, maitatia, garbia, zuzena zara? — *Nagosia.* — Biar dana ta biar danez agintzen dozu? — Zuzen eta maitasunez darabilzuz zeure menpekoak, otsein-mirabiak? — *Menpekoa.* — Nagosiak lotsa izan eta euren aginduak apalkiro egiten dituzu? — Zure biarkun eta egikizunak betetzen dituzu? — *Langille, ugezaba, yagole, buru, irakasle, osagille, epaikari, legekari, urizain..... jaupari, lekaide* ¿zure egin biarrak zintzo betetzen dituzu?

BOSKARREN AGINDUA. — Iñori edo zeure buruari itzez ala egitez kalterik egin dautsozu? — Iñor gorroto izan dozu? — Iñori pekatuan jausipiderik emon... añendu... gaizki opa-izan? — Iñor jo, asarretu, gogait - erain, izekatu... txiruak... menbekoak? — Seta txarrekoa zara, agirikatsua, zorrotsegia? — Zure otseñak gaizki darabilzuz janaz, luaz... ta abar? — Biarizanik dakuzula, laguntzeko gertu zagoz?

SEIGARREN AGINDUA. — Autu zikiñik erabilli dozu? — Ikuskizun loyetara eldu zara? — Ipuin, izparringi, idazti zatar edo lizun

samarrik irakurri dozu?—Pekatu egiteko zorian zagoz?—Zikinkeririk egin dozu?—Zeure buruagaz bakarrik?—Zelako lagunakaz?—Dantza nasturik egin dozu?— Begirunez jazten zara?

SASPIGARREN AGINDUA.— Ezer ostu dozu? —Ogasunetan iñori kalterik egin? — Biar dan baño geyago kendu, edo biar baño gitxiago emon dozu? — Saldu - erosietan iñor atzipetu (engañau) dozu?—Lapurreta txikirik egin? — Zorrak ordaintzeko nagi izan zara? — Biar dan alogera ta adionez emon dozu? — Adionez ordaintzen dozu saldoki, jostundegi... ta abar?—Soroskirik emoten dozu, ala gustia zeuk iruntsi nai dozu, asko euki arren be?—Geyegian jan, jantzi....?

ZORTZIGARREN AGINDUA. — Guzurrik esan dozu?—Iñori guzur-erain?—Eskutuko utsegiterik atzaldu dozu?—Ixilliko gauzarik agertu?—Iñoren idazkirik irakurri dozu? —Mor-morka ibilli, edo iñoren susmo biderik emon dozu?—Iñor gaitik gaizki esaten jardun zara? — ¿Iñor txarretsi dozu ziyo bage?

BEDERATZIGARREN AGINDUA.— Zikinkeririk egin gura izan dozu?—Gomuta, oldozkun edo pentzamentu loyei atsegiñez adi egon zara? au da, oldozkun (pentzamentu) loya uartu ta atsegiñez adi egon?

AMARGARREN AGINDUA.—Iñorena artzeko gura izan edo asmorik izan dozu?— Gura izan dozun gustia emon ez dautzulako edo, Jainkoa'ren aurka mur-murka ekin dautsozu?—Irabazi-arazuai gogua geyegi ezarrita, *Jainkoa'tzazko, seme-alabatzazko... arazuak itxi dituzu?*

ELEIZAREN AGINDUAK.— Jayegunetan mesa osoa entzun dozu?— Paskoaz autortu ta Jaunartu dozu? — Zeure arteko gexuai adionez adirazi dautsezu Eleisakoak artzeko? — Barau ta aragi-isteak egiten dozuz?

AZTERTU BAITA, iya astija zelan erazoten dozun, izakerea leundu dozun, zurrago, zuzenago, sendoago ta neurritsuago zaran ala ez.—Jainkoa'tzaz ta geidiatzazko maitasunik ete dozun ala ez.

## Bigarren azterkuna
**( Luzaroko autorkuntzetarako )**

LENENGO AGINDUA.—Jainkoa beste gauza gustiak baño maitiago izan.

Gaizkatzeko (salbatzeko) ta zeure egin -biarrak betetzeko biar dana ¿ete dakizu?

Eleiz-Ama Katolikoak irakasten dauna ¿ziñesten dozu?

Luzaroan egon zara otoirik, eta ziñeste, itxarokun eta maitasunkintzarik egin bage?

Pekatu astunik, lotsaz-edo, autortzeke itxi dozu?

Jainkoa zugaz arduratzen ez dala esan, edo Bera'gan zure ustia galdu dozu?

Eleizari edo eleiz - gizonai lotsea galdu dautsezu?

Sakramentuak bere aldietan artu dituzu?

Pekatu aztunaz sakramenturik artu dozu?

Idazti (liburu) txarrik irakurri, idatzi edo emon dozu?

Aztikeri ta sorginkerietan ziñestu dozu?

Aztiei galdetzen ibilli zara? — Onako batzarretara juan zara?

Ziñeskairik ukatu edo, zeuk naita, ezpayan ipiñi, edo erlejiño gustiak bardiñak dirala esan, edozer esan, irakurri ta idatzi leikela aldeztu dozuz?

Esamesen bildurrez edo gizonen lotsaz, Jainkoa'ganako itzala galdu dozu?

BIGARREN AGINDUA. — **Jainkoa'ren izena alperrik ez aitatu.**

Guzurrez edo ezpayan zin (juramentu) egin dozu?

Iñori kalte egiteko zin-egin dozu?—Biar bage edo oitura txarrez zin-egin dozu?

Jainkoa'ri egiñiko eskañik, al izan da, betetzeke itxi dozu?

Norbaiti edo Jainkoa'ri añenik (maldeziñorik) ezarri dautsozu?

Biraorik edo birao antzeko itzik esan dozu?

IRUGARREN AGINDUA. — **Jayegunak donetu.**

Mesatara uts-egin, edo *Credo* esanda gero eldu, edo jaupariak Jaunartu baño len urten zara? — Mesatan adige (distraituta), zeure guraz egon zara?

Ordu bitik iruko lana egin edo eragin dozu, biar izan bage?

Zeure menpekoai mesa entzuten galerazo, edo seme-alabei entzun erain ez?

Jayegun osoa joko ta abar galtzen dozu, eleizkizun, itzaldi... eldu bage?

LAUGARREN AGINDUA. — **Aita ta ama goretsi.**

*Semiak.* — Zure gurasoen agindu zuzeñak egin dozuz?

Zure gurasoak gogorki ta lotsa bage artu dituzu?

Gurasoetzaz iñoren aurrean lotsa izan zara?

Zemaka, izekaz, irriz, joka erabilli dituzu?

Gurasoen *azken-naya* zietz egin dozu?

Biar izanetan sorosi (sokorridu) dituzu?

Zeure irabaziak emon deutsezuz?

Nagosien aginduak egin eta itzala zaindu dautsezu?

Lege ta egin biar zuzenak bete dituzu?

Agindutakoan eta agindutako eran lan egin dozu?

Zeure egikizunetara belu eldu zara?

Ugesaben ixilliko gauzak, utsegite ta estu-aldiak agertu dituzu?

*Gurasoak.*— Seme alabei kistar-ikastia irakatsi dautsezue?

Oitura onakaz asi dozuz?

Utsegiteai dagokionez zuzendu ta zigortzen dituzu?

Nundik eta nogaz dabiltzan, zer irakurten daben, zer egiten daben, obetu ala deungatzen doyazan begiratzen dozu?

Ikastola edo eskola onetara bialtzen dituzu?

Eurai dagokioen bizibidia emoteko alegintzen zara?

Alperkerian ibilten lagatzen deutsezu?

Zure alabai iñogaz, bakarrik, gabez, lagatzen deutsezu?

Seme-alabak leusindu, ta lotsa bage azten dituzu?

Itzez edo egitez, ikasbide txarra emon deutsezu?

Bizibidia aukeratzen galerazo deutsezu, eskontzen edo lekaidetzan (erlejiñoan) sartzen, zeuri atsegin etxatzulako, itxi ez da?

Jaraüntsian kalterik egin deutsezu, ogasunik itxi ez, edo bestiai baño gitxiago, ziyo bage, itxi-ta?

Otsein - mirabetzan gorputz edo gogo kaltezko tokian ipiñi dituzu?

*Senar-emaztiak.* — Itzez ta egikunez alkar ondo artzen dozube?

Naibage gogorrik, ziyo bage, alkarri emon?

Seme-alabaen aurrian beretsi edo gaizki artu?

Zure ogasunak eutsin eta ugaritzeko alegindu zara, ala oitura txar ta uskerietan ondatu dituzu?

Zeure irabaziak emaztiari emon dautsozuz, ta etxeko gora - beretako biar dauna?

Irabazpide ta beste arazo astunetan alkar aitu zare?

Jainko ta gogo arazoetarako aukeria alkarri kendu deutzezube?

Zure senarraren agindu zuzen astunak egin dituzu?

Batak bestia bakarrik luzaroan itxi dozube?

— Eskontzea Jainkoa'k agintzen daun lez, darabiltzu?

Azken-naya egin, eta zure gora-bera

gustiak, gero nasterik ez izateko eran, atondu dituzu?

*Anayak.* — Alkar ondo artu dozube?— asarretu zare?—Alkarren gaiztakeriak gurasoei estaldu?

*Nagosiak.*—Lege zuzenak bete eragin, eta gaiztoei dagokien zigorra emoteko, sayatu zara?

Zerga (kontribuziño), onura, irabazpide, sari ta abar, zuzenez banantzeko alegindu zara? — Txiro ta biartsuak, batez be, zeure kerizpian artu dituzu?

Jauntxuen ta aizkidien naikerietara itzuli, edo okerretiko esanai makurtu zayakoez?

Agindu biar dozuna agindu dozu?

Oben edo gaizki-bide, lapurreta, asarre, gorroto, oyen (engaño)... garbitzeko adorez alegindu zara? ala jauntxuen bildurrez edo zeure onuraz laga dituzu?

Lege deunga, epai oker, geyegiko zigorrik, ausi-agiri okerrik, onetsi ta emon dozu?

Erri-buru, epaikari, osagille, lan-artezkari, itundari, langin-buru arazoak bete dituzu?

Aberatzen arazuak erabagitzearren, txiruenak baztertu dituzu, kalte egiten deutsezularik?

Zeure ordezkoak, zeugana datozanakaz, zitalak izan ez daitezan alegindu zara? —Dubako arazoakaitik alogerik iñori kendu ez dagioen?

Zure menpekoak arrokeriz artu, edo biar daben baño geyago eragin, edo biar besteko alogerik emon ez?

*Otsein-menpekoak.* — Zeure bizibidera jarri zara?— Jainkoa'ren aurka mur-murka ekin dautsozu?

Zeure lege, agindu edo arauak ausi dituzu?

Zeure egin - biarretzaz nagi izan zara?

Gizonen bildurrez egin dozu agindu oker, kaltegin edo Jainko-agindu en aurka danik?

Ugesabaz egiñiko egiunia (contratua) ausi dozu?

Ugesaba gaizto, ziñausle, pekatuan edo pekatu bidian bizi, edo Jainko - legia bete ezingo dozun etxian ete zagoz otsein-mirabetzan?

Ugesabai pekatu egiten lagundu deutsezu gezna (errekaua) eruan, euren deungakeriak estali ta abar?

BAKOITZAREN EGIN BIARRAK

*Irakasleak.*— Irakastaldia betetzen dozu?—Arduraz irakatsi?—Irakas-gaya gertatu?—Gauza onak irakatsi?— Ikasle batzuekana etziñago izan?— Jakin agiriak zuzen emon?—Augaitik zerbait kendu?— *Irakaslien obenak astun - astunak izan leitekez?*

*Guraso-ordekoak.*—Ume zurtzen ogasunak zuzen darabilzuz?— Ondo azteko alegintzen zara? Artu emonak, adionez, agertzen dituzu?

*Ugesabak.*—Aloger zuzen egokia emoten dozu?— Zure langiñak kistar - maitasunez artzen dituzu? — Eurokazko legiak zaintzen dituzu?— Jopu (esclavo) lez, ala gizon eta anai lez artzen dozuz? — Oitura txar ta arima galtzeko bidietatik iges eraiten deutsezu? — Jainkoa'tzazko biarkunak aukeran betetzeko astia emoten deutsezu?— Biartsuak gaizki erabilli dituzu?

*Langiñak.*—Ugesabazko egiuna betetzen dozu?—Ugesabaren gauzakaz ardu-ratzen zara?—Lanaldia zietz bete dozu?—Oporketan jaiki, ta beste batzuk eregi dituzu ziyo bage edo okerrez?— Ugesabari bere ogasunetan kalterik egin dautsozu?—Iñori lan egitia galerazo dautsozu, eskubide bage?

*Epaikaria (jueza).*—Epai okerrik emon dozu? lasterregi? edo ausi-agiri bage?—Gaiztakeririk zigortzeke laga dozu?—Auziei luzebiderik emon dautsezu?—Auziak nastau?—Bezuzarik (regalo) artzen dozu?

*Latari (abogau).*—Auzi okerrik artzen dozu?—Bezerua guzurrez ete darabilzu, zeuk irabaztiarren? — Ixillekorik agertu dozu? — Auzirik luzatu edo auzi ingiak (papelak) zeure erruz nastau dozuz?—Auzi gaya ondo ikasten dozu?

*Osagille.*—Gexuekaz biar danez ardu-ratzen zara?—Zeure egikizuna betetzeko lain ba'ete dakizu?—Bada-ezpadako osakirik ba'dabilzu, aztertzeko asmoz?— Alperriko osagai ta laskatzerik (gastu) agindu dozu?— Geyegiko lan saririk kendu

dozu, batez be txiruei?— Gaizkeri edo deungakeririk egiten lagundu dozu?—Eriotz zorian dagozan gexuei adirazten deutsezu, adionez gertu daitezen?— Zure al izatiari dagokion maitasuna ba'dozu? ta onerako erabilten dozu?—Txiruekaz aberatzakaz baño mukerrago ete zara?

BOSKARREN AGINDUA.—Ez iñor il.

Iñor bait il, zauritu edo jo dozu?— Eupadarik (desapio) egin, eldu, lagundu edo orretan sartu?

Itzez norbait iraindu, edo kalterik egin?

Zeure bizitz edo osasun kaltezko zerbait egin dozu?

Adikuntzea (ezaguera) galtzeraño orditu zara?

Edari edo osagairik asmo txarrez emon dozu?

Pekatuan jausipiderik iñori emon, edo pekatu egiten erakutsi edo erazo dautsozu egiñen gaiztoz, janskeraz, autu, izketaz, idazti txarrez, ipuñez, antzezki (estampa)... ta abar?

Iñori gorrotorik edo bekaitzik (inbidija)

edo gaizki gura izan dautsozu? iñoren ezbiarraz poztu zara?

Iñoren onaz arduratu zara, kaltia erraz aldendu zeinkiala, adibidez, pekatu bidian dagozanak, zuzendu ta bideratu al daikezanari zalatuta?

Parkatu ta aizkidetzeko gertu zagoz?

Iñor iraindu ba'dozu ¿parka - eskatu ta irain ordaintzeko gertu zagoz?

Iñori irri - egin, edo izekaz mindu, edo gaizki esan, edo, ziyo bage, negar eragin dautsozu?

Iñori gogorregi akar (asarre) egin, edo iñorbait iraindu dozu?

Biartsuei, al dozunez, lagundu deutsezu?

SEIGARREN AGINDUA.—Aragikeririk ez egin.

Zikinkeririk egin dozu? bakarrik? lagunaz? zelako lagunaz?

Jolas ta kirol txarretan ibilli zara?

Ziñu loyak egin edo gorputz - erain txarrak? begirunez ala ganora bage jantzi, erantzi, jolastu zara?

Autu loyak esan, entzun, ipuin, abesti, irakurgai, izparringi, antzezki edo gauza zikiñak ikusi, irakurri..?

Gauza zikin edo zikin-usañekorik begiratu dozu?

Gauza zikin edo satar samarrik ikusi ta entzuten diran dantza, antzoki (teatro), zine, ta batzarretara eldu zara?

Gauza lizunik idatzi edo margoztu (pintau) dozu?

Ganora bage jantzi ta agertzen zara?

Otsein edo mirabea zaralarik ¿pekaturako tokian zagoz? saldoki edo badezpadako etxietara juan oi zara? zikinkeriak estaldu edo egiten lagundu dozu?

Ezkontzeko asmo bage, astija erazotearren, artu-emonik ba'dabiltzu?

Etxetik at (kanpoan) gaba igaroten dozu?—Oitura txarrez belu etxeratzen zara?

SASPIGARREN AGINDUA.—**Ez ostu.**

Iñoren gauza astunik ostu dozu?

Iñori kalterik bere ogasunetan egin dautsozu?

Ostutakua, al dozula, jabiari itzuli dautsozu?

Kalte aundia, al dozunez, ordaindu dozu?

Saldu edo erosi dozu ogenez (engañuz)

pisuan, neurrian, saneurrian (prezioan) zeindasunian (kalidad), edo gauzak izunduta edo paltzipikauta?

Euneko larregirik iñori kendu dautsozu?

Osturiko zerbait, jakiñez, erosi, edo seme, otsein... etxeko lapurrak estali dozuz?

Dirute aundirik, edo iñorenik jokatu dozu?

Jokuan ogenez (tranpaz) irabazi dozu?

Gauz ez diran diruak ontzat emon, edo apurretak erosketan egin?

Biargin, jostun, otsein-mirabe alogerak luzaroan emon ez, edo il buru, urteurren, ukarrak (limosna) luzaruegi eukitez kalte egin dozu?

Bizibide ta onurak erritar, arazodun eta langille artian zuzen eta egoki banandu dozuz?

Iñoren lepotik bizi nai daben jauntxuen naikeriz gauzak atonduten laga dozu?

Auzilari edo salerosten diarduenakandik, eskupekorik artu dozu?

Zorrik ba'dozu? zor ordaintzalle mukerra zara?

Ilburuko agindu ta azken nayak zietz egin dozuz?

Autarkia, (botoa) duiñen, gayen, eta kistar ona danari emon dautsozu?

Autarkiaz (botoaz) kalterik egin dautsozu Erlejiñoari, edo Aberriari, edo erriari, edo zuk baño eskubide geyago ebanari?

Zure maister, bezero, menbekoai autarkia emon erazo deutsezu, okerrez, zeuk, gura izan dozunari?

ZORTZIGARREN AGINDUA. — **Ez guzurrik esan.**

Iñoren kalte astunezko guzurrik esan dozu?

Guzurrez ziñaltzarik (testimonio) iñori ezarri dautsozu?

Iñoren utsegite eskuturik, ziyo bage, azaldu dozu?

Iñor, ziyo bage, txar-etsi edo juzgau dozu?

Garrantzidun (inportantzi) ixilleko gauzarik agertu, edo zeuk ixillik eukiteko itz emondakorik, edo itz emon ezarren, berez ixillik eukitekoak diranik?

Iñoren idazkirik (karta) idigi edo irakurri dozu, txartzat artuko dabela jakinda?

Ixillikoak aitzen egon zara?

Alkarren arteko esamez ta jardunak erabilli dozuz?

Iñori ospe ona kendu edo irri-egiteko gauzarik idatzi dozu, ziyo ta eskubide bage?

Iñor gaitik garrazkiro gaizki esaten jardun zara, ziyo bage?

Ospe ona ordaintzeke laga dozu, al dozularik?

Iñoren utsegitiak geitu dituzu?

Itzerdika edo zeozer esan gureaz, norbaitetzazko susmo txarrik sortu dozu?

Iñorgaitik gaizki esaten atsegiñez entzun, edo utsegite ta ixilliko gauzetzaz itanduta, mur-murra ixotu dozu?

Gaizki esatia laga dozu, galerazoteko biarra dozularik, adibidez, gurasoak semietzaz?

Geidia (projimua) aldeztu bage laga dozu, erraz al dozularik?

BEDERATZIGARREN AGINDUA.—Iñoren emazterik ez gura izan.

Gurari edo asmo zikiñak izan dituzu, egin ez arren?

Gogalkizun (pentsamentu) txarretan atsegiñez egon zara, egin ez edo egiteko asmorik izan ez arren?

AMARGARREN AGINDUA.— Iñoren ogasunik, bide bage, ez gura izan.

Iñori bere ogasunak ostuteko edo kalte egiteko gogo edo asmorik izan dozu, edo lapurretarako onu edo biderik emon?

Iñorena ostuteko gogoz, oporketa, naste edo tarranparik asmau dozu?

Jainkoa'ren aurka gaizki esaten jardun zara, geyago emoten ez dautzulako?

## ELEIZA'REN AGINDUAK

LENENGO AGINDUA. — Mesia entzun.

Jayegunetan *Mesa* osoa entzun dozu, ala belu eldu zara, *Kredoa* esanda gero?

BIGARREN AGINDUA. — Eleiza'k agintzen daunian autortu.

Urtian bein autortu zara? Ondo ala gaizki?

Pekatuan zagozalarik, Jaunartu edo bes-

te *sakramentuen* bat, adibidez, ezkontza artu baño len, autortu zara? Pekatuan ezkontzia, donaustia (sakrilejioa) da.

Gexoaldian adionez autortu zara?

Zeure arteko gexuei adionez adirazi dautsezu autortu ta Jaunartzeko, ala guzurrezko maitasunez atzipetu (engañau) dozuz?

IRUGARREN AGINDUA.— **Igaratzez** *(Paskoz)* **Jaunartzia.**

Igaratzez Jaunartu dozu? Ondo? Zeure eleizan? Parrokoaren bayetzaz beste eleiz baten?

LAUGARREN AGINDUA.— **Barau egin.**

Barau egin dozu, al dozularik? Aragia isteko egunak zaintzen dozuz?

Buldia artu dozu, txirua ezpazara?

BOSKARREN AGINDUA. — **Amarrenak eta lenengiak ordaindu.** — Erriko txadonari (eleiziari), ta jaupariei, al dozunez ta kistar onari dagokionez, laguntzen deutsezu?

## Pekatuen garbaya

UARRA. — Benetan garbai (damu) izateko ez da biar norberak susmatzia. Naiko da norberen deungakeriak gorroto izan, egin ditualako tamal izan, norberagan ez euki gura izan, eta, edo obena ain itxusia dalako, edo Jainkoa'ren zigor bildurrez, edo Jesukisto gurutziltzatuaren maitasunez, edo Jainkoa beti gugaz ain ona dalako, pekataria lotsa izatia, Jainkoa'ri dagokion itzala ta maitasuna galdu, ta bere lege deuna ostikopian erabilli daulako.

## Garbai - Otoya

I. — O neure Jaun eta Jainkuoi, Jainko Deuna, Jainko zuzena, gaizkeria gorroto dozunoi: ni pekatari au, neure oben orbanez (mantxaz) lotsatuta apalki aurkezten nayatzu, neure deungekeri gustien parkaeske: ta autorkuntza onen bidez garbitu nagizula zeure Semia'ren odolaz, Zeu'gaz ta Espiritu Santuaz beti - beti bizi dana. Olantxe.

II. — O neure Jaun eta Jainkuoi, gizonen gaiztakeri ta egiñen gustien Epaikari (juez) arteza, deungakeria bizitz onetan

edo bestian zigortzen dozun oi; ni, pekatari au, neure obenakaz gaiztokia (inpernua) ta zigorra irabazi dodan au, zure Jainkozko erruki aurrian apal jartzen naz neure pekatuen azkitza edo absoluziñoa emon, eta parkatu dagistazuzan zure Seme Deun - Deunak nigaitik eskiñi eutzuzan oñaze, nekauste ta eriotzagaitik: Zugaz ta Espiritu Santua'gaz aldi oro bizi dana. Olantxe.

III. — O ene Jaun eta Jainkuoi, o Jesukisto ene Jaunoi, ni erostiarren gizon egiñoi; nire pekatuen parkaziñoa iristearren gurutz iltzerano, ta neure deungakeriakaitik bizitz emoterano maite izan ninduzun: zure oñetan auspez etzuten naz, ta parka eskatzen dautzut, zure odola ta bizitza nire aldez emon erain eutzun maitasuna ezetsi (despreziau) ta barriro iraindu zaitudalako; emodazu goi-eskarra (grazia) autortu, garbatu ta zuzentzeko, beti-beti bizi zaran neure Jaun orrek. Olantxe.

IV. — O neure Jaun eta Jainkuoi, o Aita on oi, gure Egille ta Ongille oi! O gizon gustien Jaun Nagosi ta Ongille oi, garbai

naz Zu ain ona izan eta iraindu zaitudalako; ta zure muga bako ondasun aurrian apal-apalik aurkezten naz, seme galduak lez eskatzen dautzudala, parkatu ta zeure besartian barriro artu naizula, baita zeure etxian be, garbai bidez Zeugaz aizkidetuta. Jesukisto gure Jauna ta Zure Seme egiagaitik, Zeu'gaz ta Espiritu Santuaz aldi oro bizi dana. Olantxe.

SANCHO EL SABIO

## Autortzeko era

Bestia autortzen dan artian *Ni pekataria* esakezu, astirik ez galtzeko.

Zeure aldija elduko yatzunian, autor-entzule aurrian, sutik edo belauniko, oi danez, esayozu: *Agur Maria, gustiz garbia* ta berak erantzungo dautzu: *Orban bage sortua.*

Beriala zeuk ekingo dautsozu: Onen beste... (aldi) da, oñengo autortu nintzala. Oben nekia (penitentzia) egin neban (edo «ez»). Pekaturik eneban (edo «bai») itxi, ez lotsaz, ez aztuta.

Ordutik ona, onexek pekatuok egin ditut... Esan gogoratzen yatzuzan gustiak.

Zeuk bakarrik autortu biar dozu, erraz ta obe da-ta. Ezin ba'dozu, esan itanduteko, ta itaun gustiei erantzun; ta itandu ez dautzun *zerbait* ba'zendu, zeuk esan. Ez lotsarik izan;

ondo artuko zaitu, ixillik eukiko ditu, ta gustia esan ondoren, poz-pozik gelditiko zara.

Aditu, apal-apalik, autor-entzuliaren onuak (konsejuak) zeure onerako dira-ta. Zeure aita da au, zure irakasle, zure epaikari ta osatzallea. Kezka ta ezpayetzaz itandu. Biar dituzun irakatsiak eskatu. Otuten yatzun gustia esayozu, aizkiderik onenari lez. Ixillik euko dituala, eskier (seguru) zagoke.

## Oben nekia (penitentzia)

Autortu ondoren, al ba'dozu, beriala oben nekia egikezu. Orduan ezin ba'dozu, edo luze samarra dalako, zerbait itxiten ba'dozu, ainbat lasterren egin. Ardura bereziaz aztertu biar dozuna da, len izan dituzun pekatu egiteko zoriak, erabagi sendoa artzeko, pekaturik egin ez ezen, pekaturako bide gustietatik igesteko. Ta egi au goguan euki:

Galbidietan ez dabillena, erraz ondo bizi da.
Galbidietan bere guraz sartzen dana, erraz [jausiko da.

## Autorkuntza osterako otoyak

Pekatuaz asarretu ta garbayaz (penitentziaz) ibitzen zaran ene Jaun-Jainkoa:

nire biotz garbatuaren otoyak errukiz aditu egizuz, ta aldendu onezkero nigandik, nik irabazitako zure asarriaren zigorra. Jesukisto neure Jaunagaitik. Olantxe.

Maite zaitubenen onerako gauza gustiak itzultzen dozuzan ene Jaun - Jainkoa, iñoz aldatzen ez dan zure maitasun-garra gure biotzetan ızuri egizu, Zeuk adirazita artu ditudan nire asmo ta gurariak iñungo ziltzaz (tentaziñua) aurrerantzian aldatu ez dagidazan.

Kiskaldu egizuz Espiritu - Santuaren suaz gure errai ta biotzak, gorputz garbi ta biotz zindoz otsein dagitzuguntzat.

Ene Jaun-Jainkuoi, ez dozu zugandik iñor jaurtitzen, ezperen pekatu egin ba' dau be, bere garbayaz erruki berez ibitzen zara; aditu bigunki gure eskari apalak, eta gure gogoak argitu zure agin-duak egin al daikeguzantzat.

Gaiztoa donetu (ondu), ta pekatariaren eriotzarik nai ez dozun ene Jaun Jainkoa; zure Jainkozko Jaundasunari, arren, dei - egiten dautsogu, guk zure otseñok zugan uste dogun lez, bide berez zure la-

guntzaz urgazi (zaindu), ta zure babes iraunkorraz eutsi gaizuzala, beti zuri otsein egin, eta iñungo ziltzaz Zu'gandik aldendu ez gaitezan. Jesukisto gure Jauna'gaitik. Olantxe.

## Andera Maria'ri otoya

Emoguzu, Jaun errukiorra, guri jauskorroi zure laguntza, Jainko'aren Ama Deuna'ren gomutea aitatzen dogunok, bere bitartez gure gaiztakerietatik jaiki gaitezan. Jesu - Kisto berbera gaitik. Olantxe.

# Jaunartza

1. Jaunartza da, ogi ta ardao irudipian, Jesu-Kisto'ren Gorputz ta Odola artzen doguzan sakramentua.

2. Urtian bein Jaunartzeko biarkuna dago.

3. Baña Aita Santuak eta Eleizak irakasten dauskube, Jesukisto'ren gurea dala, *egunero*, al ba'litz, edo al dogunik sarrien Jaunartzia, bai gizakume ta emakume, bai umiak.

4. Kistar eraskunetatik (deboziño) onena, egunero mesia entzun eta bertan Jaunartzia da.

5. Jaunartzeko arima goi-eskarrez, Jainkoaren graziz, oben astunik bage, euki biar da.

6. Oben ariñak ez dabe Jaunartza gebentzen

7. Oben ariñak Jaunartzaz kentzen dira.

8. Gorputz aldetik, Jaunartzeko ez da ezer jan, ez edan biar gabeko amabietatik.

9. Egoki da baita Jaunartzeko, gure gogoak ziñismen, itxarokun eta Jaun-maitasun gintzaz, ta otoi ta gogarte Jainkoiz sututzia.

10. Jaunartzeko gerkunik onena, zuzen bizi, ta aurreztik mesia entzutia da.

11. Mesarik entzuten ez danian, amar minuto naikoa dira gertatzeko, edo gitxiago astirik ez-padago.

12. Eskerrak egiteko ordu lauren bat egoki da, zerbait otoi dagiogula, bularrean dogun Jauna'ri.

13. Jaunartzen begirunez ta tayuz eldu biar da; belaunbikotu; jauparia datorrenian burua piskat jaso; begiak itxi; aboa zerbait idigi; miña neurriz atara; ta ogi deuna (ostija) artutakoan geldiro irentzi; begirunez jaiki; eskumiaz belaunikotu, ta bere tokira juan eskerrak egiteko.

14. Egoki da, biar izan bage, txisturik ez botatzia ordu lauren baten.

## Jaunartze aurretiko gogo-gayak

Gogotsuago Jaunartzeko, egoki da gogoratzia, nor datorren, noren gana, zertarako.

Egun bakotxerako gogo-gayak ipinten doguz.

*Nor dator? Norgana dator? Zertarako dator?*

1. Ene Jainkoa, ni, bere izaki (criatura) au jainkotzeko.

2. Ene Aita, ni, bere seme oker au ondutzeko.

3. Ene Erregia, ni bere menbeko au aberastuteko.

4. Ene Eroslia, ni oben - jopu au azkatzeko.

5. Ene Jesus, ni galdu au, gaizkatzeko.

6. Ene Jauna, niri bere otsein oni, agintzeko.

7. Ene Artzain Ona, ni bere ardi au jaboteko.

8. Ene Irakaslia, ezjakin aoni irakasteko.

9. Ene Osagillea, gexo au osatzeko.

10. Ene Aizkidea, jateitu (convidau) oni lagun egiteko.

11. Ene Anai Abel, niri bere anai oni parkatzeko.

12. Ene Epaikaria, ni pekatari au azkesteko (parkatuko).

13. Ene Jauparia (abadia), nire biotza deuntzeko.

14. Ene Bizitza, iltzer (eriotzan) nagon au biztuteko.

15. Ene Egia, ni guzurretik ataratzeko.

16. Ene Bidia, ni bidezti au donokiratzeko (zeruratu).

17. Ene Matzorpua, ni matz-ayen au beragan estituteko.

18. Ene Bizitz-ogia, goseti au janaritzeko.

19. Ene Ereillia, nere gogoan bere eskarrak (graziak) ereiteko.

20. Ene Iturria, nekatu au bizkortzeko.

21. Ene Izarra, itxasozti au (itxasoz dabillena) zuzentzeko.

22. Ene Itxontzi-jaurlea (pilotoa), bere itxasontzi au eruateko.

23. Ene Jesus-Umia, ni seaskatxo au apal eiteko.

24. Ene Eredua, nire gogoa bere antzeko egiteko.

25. Gurutzatua, aukera-zale oni gurutz bidia irakasteko.

## Jaunartze aurretiko Otoyak

Jainko samur-samurroi, zure errukia gure eskarietara itzuli egizu, ta Goteunaren (Espiritu Santua) eskarrez gure biotza argitu, zure Ikurtona (Sakramentua) duindo artu, ta zeu beti - beti maite zaiguzantzat.

Ene Jainkuoi, Zuretzat biotz oro (gustia) agirian dago, naimen orok itz-dagitzu, ixillikorik ezer estalduta ez dago, Goteuna barrenduta, gure gogo-oldozkunak (pentzamentuak) zindotu egizuz, Zu osoro maitatu ta duindo goraldu zaiguzantzat. Erre egizuz, Jauna, Goteunaren suaz gure errai ta biotzak Zuri gorputz garbiz jopu egin, ta gogo aratzez zuri atsegin dagitzugun.

Argitu begiz, arren, Jauna, gure gogoak Zeugandik datorren Gotasetzalliak (konsolatzallia), eta eruan begiz Zeure Semiak abindutako egi utsera.

Gugaz bedi arren, Jauna, Goteuna'ren indarra, gure biotzak samurki garbitu ta gaitz gustietatik aldezteko (defendidu). Ziñestedunen biotzai Goteuna'ren argiz irakasten dautsezun ene Jainkuoi; iguzu Goteun orrexez zuzen txastatu (gustau), ta bere atsegiñez beti atse gaitezala.

Garbitu egizu arren, Jauna, zeure ikertaldian gure gogoa, Jesukisto zure Seme ta gure Jauna etorreran, berarentzako biztoki gertua gugan aurkitu dagikeantzat,

Zugaz ta Goteunaz aldi oro bizi dana. — Olantxe.

## Sortze Garbiaren bitartezko otoya

Andera Mari Sortze Garbiaren bidez Zeure Semiari biztoki egokia gertatu zeuntson ene Jaunkuoi; iguzu arren, Zure Seme berberaren eriotza len ikusiagaitik gure Ama orbanetik yabon zendun lez, bere bitartez garbi eldu gaitezala Zeure Semia artzeko. Zeugaz ta Goteunaz aldi oro bizi dana.—Olantxe.

## Akino'tar Toma deunaren otoya

Ona eltzen naz, ene Jainko altsu ta betikor ori, Zure Seme bakar ta nire Jaun Jesukisto'ren ikurtonera (sakramentura), gexua osatzalliagana, loya erruki - iturrira, txirua zeru - ludiko jabiagana, itxua dizdiz betikorraren argira, aula Bakaldun aintzatsuagana.

Indazu, Jauna, zure gorputz ta odol deun-deunaren ikurtona (sakramentua) ez

ezen, ikurtonaren goi-eskar ta indarra be artu daidazala. O Aita maitati ori, indazu, orain bidian estalirik artu gura dodan zure Seme maite ori, arpegiz-arpegi betiraunez ikusi dagikedala. Zeugaz ta goteunaz aldi oro bizi dana. Olantxe.

## Jaunartze aurrerako ekandun egintzak

ZIÑEZKINTZA. Zugan ziñesten dot, ene Jainkuoi, Zeu zara ba Egi utsa, ezin ogendu (engañau) zindekez, ta ezin iñor ogendu zeinke.

ITXAROKINTZA. Zutzaz itxaroten dot, ene Jainkuoi, altsu - errukiorra zaralako, ta, neuk nai ezkero, zure goi - ezkarraz donetu ta gaizkatu nai nozulako.

MAITEKINTZA. Maite zaitut, ene Jainkuoi, gauza gustijak baño obe zaralako, tą on - ona izan zayatazalako, neuk irabazteke.

GURTZA (adoraziñoa). Gurtutzen zaitut, ene Jainkuoi, guren-gurena zaralako, deuna, gauza gustien Jainko ta Jauna.

APALESKUNA. Zure oñetan auzpez etzu-

ten naz, Zu bage utza ta aula nazalako, ta biar-neban lez otseindu ez ta asko iraindu zaitudalako.

GARBAYA. Neure oben gustien azketza (parkaziñoa) eskatzen dautzut, ene Jainkuoi, ta, Zeu ain on-maitegarria zaralako, garbai-naz Zu irainduaz; neure oben-nekia artzeko gertu nago, ta bide onari jarraitzeko.

ESKER-EGINTZA. Eskerrik asko, Jaunoi, niri gaurdaño egiñiko eskar gustietzaz, ta, batez be, gaur nik zure gorputza artzia nai dozulako.

ESKINTZA. Nazan eta dodan gustia eskintzen dautzut, Zeuk naiko dozun lez beti otseintzeko.

JAINKOA'REN NAIKINTZA. Zure Jainkozko naira osoro etziten naz, ta pozez abetaltzen dot niri emon edo nitzaz laga nai dozun gustia.

PARKESKA. Ni iraindu naben gustiak zure maitasunez azkesten edo parkatzen dodaz, Zeuk be ni azkesteko.

OTOYA. Zure nekauzte-arren, Jauna, erruki nitzaz nire ariman sarreran; bearren

dodazan eskarrak (graziak) emon; ez itxi bizitz azkeneraño; ta nire gogoa gorputzetik urtetzian, ikurton gustiekaz sendodotuta, bizitz betikorrera eruakezu.

Jaunartz - aldiyan jaupa - erazotzalliaz esakezu: NI OBENDI AU.

Gero iru bider jaupariaz:

Ene Jaunoi, enaz ni duin Zu nire gogoan sartzeko; baña itz - egikezu ta nire gogoa sendotuko da.

Gero esakezu.

Jesukisto gure Jauna'ren gorputzak jabon bedi nire gogoa bizitz betikorrerako. — Olantxe.

## Jaunartze ondorengo otoyak

Jauna emon - ezkeroko jaupari - otoyak.

O janari deuna, Jesukisto'ren gorputza artu, bere nekauztea gomutau, gogoa goi - eskarrez bete, ta geure geroko zorunaren baitura emoten yakuna!

Goitar ogia emon daustazu,
Atsegin oro beragan dauna.

## Otoya

Ikurton arrigarri onetan zeure nekauzte gomutakia itxi dauskuzun Jainkuoi, iguzu arren zure Gorputz ta Odol ikurtonak gurtu daiguzala, zeure Erospen-emokunak (frutua) gugan betiro nabaitu (susmau) daiguzantzat. Jainko Aitaz ta Goteunaz aldi oro bizi zaran oi. Olantxe.

## Loyola'tar Eneko deunaren arrentzak

Kisto'ren goguoi, donetu nagizu.
Kisto'ren gorputzoi, gaizkatu nagizu.
Kisto'ren odoloi, ase nagizu.
Kisto'ren bularreko uroi, garbitu nagizu.
Kisto'ren nekauzteoi, sendotu nagizu.
O Jesus on ori, entzun nagizu.
Zeure zauriyetan, ostendu nagizu.
Zeugandik alde - egiten, ez laketu.
Areriyo gaiztotik, aldeztu.
Eriyotz aldiyan, dei - egidazu.
Ta Zeu'gana eltzeko, agindu.
Zeure deunekin, Zu nik goraltzeko.
Amaibako egunetan. — Olantxe.

## Akino'tar Toma deunaren otoya

Eskarrik asko Zeu'ri, Jaun deun, Aita gustialdun, Jainko betikor orri, ni obendi (pekatari) au, ez neuk irabazita, Zeure erruki utsez baño, Zeure Seme ta gure Jaun Jesukisto'ren gorputz ta odol deunaz ase nozulako.

Indazu, arren, jaunartze au eztaidala izan neke - erruduna, azketzarako edo parkaziñoko bide onurakorra baño. Ziñesmen izkillua (arma) ta gogo onezko ikurdia (eskudua) izan bekit. Neure oitura txarrak utzitu beidaz, gurakeri ta nabarkeriak amaitu beidaz, maitasuna ta eruapena, apaltasuna ta menbetasuna ta ekandun gustiak geitu beidaz; arerio agiri ta eskutu gustietzaz sendoro aldeztu (defendidu)nadilla; igikada aragikor ta gogokorrak osoro ibitu(baketu) beidaz: Zeukin, Jainko bakar ta egizko orrekin batu nadilla; ta eriotz zoruntsua emon bekit. Otoi dagitzut, arren, neu obendi edo pekatari au eruan nagikezula Zeure janari andira, Zeure Seme ta Goteunakin, zorundun

gustientzat argi ederra, ase osua, pozor betikorra, atsegin betia, ta zorun - zoruna zaran janarira. Jesukisto gure Jaun berberarren. Olantxe.

## Jesukisto gurutzatuaren aurrian

### esateko otoya

Ona neu, Jesus on eta gozuori, Zeure aurrian belaunbikatzen naz, ta gogo bizibiziaz eska ta arren - dagitzut, ziñesmen, itxaropen eta maitasun sukar biziak, neure obenen benetako garbaya ta aurrerantzian ez egiteko erabagi sendua neure biotz onetan irarri (imprimidu) daizuzala; gogo andi ta min garratzaz zeure bost zauratzak gogoratzen eta so-egiten dodazala, batez be begiz - jota Dabíd igarliak, Zeutzaz, o Jesus on ori, esan ebana: NEURE ESKUBAK ETA NEURE OÑAK ZULATU, TA NEURE AZUR GUSTIAK ZENBATU EGIN DABEZ.

(Zerbait otoi esan - ezkero, adibidez GURE AITA... nekazka edo parkamen osua irabazkezu).




Kisto - Ɖeun Gurutzaldua

(Ɓergara'n gurtzen dana)

## Loyola'tar Eneko deunaren otoya

Tori, Jauna, ta artu egizu nire lakemen (libertade) osoa, nire gomutamen, nire adimen, eta naimen osoa, dodan eta daukadan gustia. Zeuk emon zeustan; zeuri itzultzen dautzut. Gusti au Zeuria da; Zeuk nai dozun lez erabillizu. Zeure maitasuna ta goi-eskarra indazuz: ori naikoa dot-eta.

## Te Deum

### Eskerrak egiteko ereserkia (imnoa)

Zeu, Jainkuoi, goresten zaitugu; Zeu, Jaunoi, autortzen zaitugu.

Zeu, Aita betikorroi, ludi osuak agurtzen zaitu.

Zeuri gotzon gustiak, Zeuri ortze (zeru) ta Almen orok.

Zeuri Jakitun-gotzonak (kerubiñak) eta Gar-gotzonak (serapiñak), etenbako oyuz dei daġitzube:

Deuna, Deuna, Deuna, Gudarozte-Jaun Jainkoa.

Ortze - lurra Zure nagositasun aintzaz beteta dagoz.

Zeu, Belduben (apostolu) bazkun ospetsuak,

Zeu, igarle-talde gurgarriak,

Zeu, Ziñopen gudarozte bikañak aintzatzen zaitu.

Zeu, ludi zabalian, Doibatz (Eleisa) deunak aitortzen zaitu:

Neurri bageko nagositasun Aba (aita),

Ta Zure egizko Seme bakar gurgarria,

Baita Gogo Deun (Espiritu Santu) gotasetzallia.

Zeu, Bakaldun (errege) aintzatsua, o Kisto!

Zeu, Aita'ren Seme betikorra!

Zeu, gizona gaizkatzeko (salbau), jatsi ziñan Neskutzaren errayetara.

Zeuk, eriotz azkona birrinduta, idigi zeuntsen ziñestedunei donoki-atia.

Zeu, Jainkoa'ren eskumaldian jarrita zagoz, Aita'ren aintzan.

Epaikari etorriko zarala ziñesten dogu.

Orixegaitik ba eskatzen dautzugu, Zeu-

re odol ederraz erositako zeure jopuak (esclavos) sorosteko.

Iguzu Deun artian betiko zoruntzan zenbatuak izan gaitezala.

Gaizkatu, Jaun oi, zeure erria ta onetsi zeure jarauntzia (erentzia).

Ta Zeuk erabilli ta betikotasunera eruan gaizuz.

Egunero donesten zaitugu.

Ta Zure izena goraltzen dogu aldi oro.

Jabon gaizuz, arren, Jaunoi, egun onetan obenetzaz.

Zure errukia gugaz bedi, Jaunoi, Zeugan itxoten dogun lez.

Zeu'tzaz nire itxopena, enaz iñoz lotsatuko.

℣. *Donetsi daigun Aita ta Semia, Goteunaz.*

℟. *Aintzalduta goretsi daigun aldi oro.*

## Otoya

Zeure errukia neurribagia, ta Zeure ondasuna muga bako ogasuntza dan Jainkuoi: Zure nagositasun errukior - erruki-

orrari eskerrak dagioguz guri egiñiko eskarrakaitik, Zeure biozperatasun eske beti, eskatzen dautzubenai euren gurea emoten dautsezun lez, itxi bage, geroko sarietarako gertatu dagizuzantzat. Kisto gure Jauna'arren. Olantxe.

Orain Ikurton deun-deunari sei Gure Aita... Agur Maria ta Gloria esan zenegike.

Urrengo datozan otoyak Jaunartze - ostez ta baita beste aldiren baten esatekoak dira.

# Otoi batzuk

**Irukoitz Deunari** *(Trinidade Santua).* Gurtuten zaitut Irukoitz Deun - Deunoi, Aita, Semia ta Goteuna, ene Jainko ta ene oro; eskerrak eta eskerrak dagitzudaz ni irasi (criar), berrerosi, ta irauten nozulako, ta Zeure Ikurton - bidez Eleisa Katolikoan imiñi nozulako, ta beste esan eziñala egiñen on ñiri ta gizadi gustiari egiñakaitik. Ara, ene Jaunoi, neu ta neure baitan (barruan) eta ataz (kanpuan) dodan gustia, neure oldozkun (pentzamentu), itz ta gaurko ta neure bizitza gustiko egiñenak, Zeure Seme Deuna'ren odolaz bat einda, eskiñi ta opaltzen dautzudaz

Zeure maitasunez ta aintzaz, ta neure geidien (lagun urkoen) gaizkatzerako. Kendu nigandik iguintzen zaituna, ta emon atsegin yatzun oro: zuzendu nagizu beti, ta ni jabetu zeure aldez (gogoz). Indazu Andera Maria zoruntsubaren errayakaitik, Zeu iñoz ez iraintzeko, Zeure naya beti egiteko baño. Eleis Katolikoaren gogo eduzko ondasuna emodazu. Gogo pozez bete nagizu, gauza gustietan eta edonun Zeu aurkitzeko, ta guenez Zeugana eltzeko duin izan nadin. Olantxe. (SPINOLA'TAR KARLA ZORUNDUNAK, J. L.)

## Jesus Gurutzatuari

**(Jabier'tar Pantzeska Deunarena, ustez)**

Enarabil, Jaunoi, Zu maitatzeko
Zeuk abindutako donokiak,
Ez naragi gaiztoki izukoyak
Zuri irañik ez egiteko,
Zeuk narabilzu, Jaun orrek; narabil
Gurutzean lotsaz ikusiyak
Zure gorputz eyoko zauriyak,
Irañez, laidoz, izekaz, maitez ¡il!

Zure maitasun utsak narabil;
Donoki bage, Zure maite naz
Gaiztoki bage, Zure bildur naz.
Ez daustazu ba maite-ordañik zor,
Itxoten dodana itxon ez da be
Ointxe lez beti, Zeu nire jabe.

## Jainkoa'ri emaitz gustiak eskatzeko

### Otoya

### ( XI Kelemente Doipuruarena )

Jaun oi, ziñesten dot; sendotu nire ziñesmen au: Jaun oi, itxoten dot; yabon nire itxopen au: Jaun oi, maite zaitut; sugartu nire maitasun au: Jaun oi, garbai-naz; bizitu nire garbai au.

Gurtuten zaitut azkun - buru lez, gura zaitut azken - buru lez, betiko ongille ori, goraltzen zaitut; zaintzalle biozpera ori, dei - egiten dautzut.

Yaurri naizu Zeure jakituriaz, eutsin Zeure zuzentzaz, atsegindu Zeure errukiaz, yabon zeure alaz.

Eskintzen dautzudaz, ene Jainkuoi, neure oldozkunak (pentzamentuak) Zeu'tzaz

oldozteko, neure itzak Zeu'tzaz yarduteko, neure egiñenak Zeuk nai dozun lez iñarduntzeko, neure nekiak Zeu'rez yasantzeko (padezitu).

Zeuk nai dozuna nai dot, eta Zeuk nai dozulako, Zeuk nai dozun lez, ta Zeuk nai dozun giñoan.

Argitu arren, Jaunoi, nire adimena, sutu nire naimena, garbitu nire gorputza ta deundu nire gogua.

Ez nayala arrokeriak ezaindu, zurikeriak igitu, ludiak atzipetu, etsayak bere sarietan atzitu (arrapau).

Indazu eskarra (grazia) gomutapena eralgitzeko (garbitu), miñari eutsin, begiak bildu, ta sentzunak bezautzeko (ezi).

Lengo dongakeriz negar begit, geroko zirikadak yaurti, jas (inkliñaziño) okerrak arteztu, biar dodazan oitura onak erabilli.

Indazu, ene Jainkuoi, Zeu'tzazko maitasuna, neutzazko gorrotua, geidiatzazko zaletasuna, ludiatzazko ezetsia (desprezio).

Nagosien aginduak eragidazuz, menbekoei aditu, aizkidiei on-egin, etsayei azketsi edo parkatu.

Bezau (bentzidu) daidala atsekeria ilduraz, dollorkeria jareitasunez, aserrekeria otzandasunez, epelkeria gogo beroz.

Ein naizu erabagietan zurra, jausi-zorietan iraunkorra, zoritxarretan eruakorra, zori onetan apala.

Egin, arren, Jauna, otoyan gogotsua izan nadilla, jan-edanian neurrikoa, eginbiarretan zintzoa, asmoetan iraunkorra.

Indazu alegindu nadilla gogo deundasuna (santutasuna) iristeko, gorputzazko begirunea (modestia), ibillera irakaskorra, bizibide Jainkozkoa.

Ekin dagiodala bene - benetan, gizaizakera ezitzen, goi - eskarrari (grazia) erantzuten, Zure legea zaintzen eta neure gaizketza (salbaziñoa) irabazten.

Iritxi daidala deun izatia neure oben aitorkuntza zindoz, Jesus'en Gorputz artze gartzuz, neure gogo baitan ibilliz, biotz asmo zuzenez.

Adirazi dazu, ene Jainkuoi, lurreko gauz oro dan aula, donokitar oro dan andia, alditarra dan laburra, betikua dan iraunkorra.

Indazu arren, eriotzarako gertau nadilla, epayaren bildur izan, gaiztokitik igesi, ta betiko zoruna iritxi dagikedala. Jesu-Kisto gure Jaunarren. Olantxe.

**Jesus'en Biotzari gustioen aldez.**— ¡O Jesus'en Biotz deun-deunoi! Izuri zure oneskunak ugari Eleisa, Doipuru ta Jauпariekana (abade). Emoyezu onai iraupena, itzuli obendiak (pekatariak), argitu ziñesgeak, onetsi gure guraso, aizkide ta ongilliak; iltzer (il-agiñik) dagozanak lagundu, garbitokiko gogaxuak edo arimak azkatu — atara,— ta biotz gustiak zure maitasunez jabetu.

**Andera Maria'ri eriotz ona iristeko.** ¡O Maria, orban bage sortua! Otoi-egizu Zu'gana gatozanen aldez. Obendien edo pekatarien zaindoki ori, iltzer dagozanen Ama, eriotzaldiyan ez gaikezuz itxi, ezperen iritxi eiguzu benetako garbaya, maite-damua ta gure oben gustien azketza (parkaziñoa); duindo Jaunartu daigula, ta azken Igortziz (Untziño-santua) sendotu gaitezela, uste betez aurkeztu gaitezan Epaikari zuzena, bai, baña baita

errukiorra be dan, gure Jainko ta Eroslia'gana.

**Deun Jose Erkabeari** *(Patriarkiari)*. ¡O neskutzen (birjiña) Zaintzalle ta Aita, Jose deun ori! Zeure ardurapian izan zenduzan Kisto Jesus Errubagetasun berbera, ta Maria Neskutzen-neskutza.

Jesus ta Maria zeure biotzeko kutun bi onekaitik, arren, eskatzen dautzut, iritxi daidazula, loikeriz azke (libre), gogo orbangez, biotz aratzez, ta gorputz garbiz, Jesus ta Maria'ri garbiro beti otsein - egiteko eskarra (grazia). Olantxe.

**Doipurua'ren aldez.** — Ziñestedun gustien Artzain eta Yaurle zaran Jaun oi! Errukiz begiratu eyozu zure otsein N....., Eleisa'ren buru, bere artzain lez, zeuk imiñi dozunari. Eyozu, arren, itzez ta egitez bere menbekoen onerako izan dedilla, bere artalde ta gusti, bizitz betikorrera eldu daiten. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Eleisa'ren aldez.**—Jaun oi: abetaldu, arren, Zeure Doibatz-otoyak, eta euroen bidez asar-ibitu zadi, zori gogor ta guzur gustiak garaituta, bildur bage ta azkata-

sun osoz otseindu zagizan. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Gotzain eta Goterki aldez** *(Obispo ta obispado).*—Gelgarriak egiteko (mirariak) iñoren biar ez zaran Jainko altsu betikor oi! Gerizpetu egizuz zeure goi-eskar edo grazia gaizkagilliaz (salbagilliaz) Gotzain eta euren ardurapian dagozan bazkunak; eta benetan Zeu atsegintzeko, ezotu egizuz beti zeure oneskun (bendeziño) iñontzaz. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Aldunetzaz** *(agintari).*—Erriak zuzentzeko aldunak ipiñi dozuzan Jainko altsu oi! apaindu aldunok ekandunez (birtutez), deungakeri-mueta gustiei yarkita (kontra ein), bide onez, zuzenez ta gentzaz (bakez) erriak erabillirik, menbeko ta gusti, betiko atsedenera eldu daitekezantzat. Kisto gure Jauna'arren.

**Senide aldez.**—Jabon, arren, Jaunoi, sendi au Andera Mari bitartez, zoritxar gustietatik, eta Zure oñetan apal - apal auzpezten dan ezkero, etsayen maltzurkerietatik bigunki ta errukitsu zain egizu. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Gentza eskatzeko.**—Gentza emon eta maitasuna laztan dozun Jainko oi! Emoyezu zure otseñei benetako alkartasuna ta Zure naira osoro etzitzea, ziltzaldi gustietatik azke (libre) gaitezan. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Biar-izan gustietarako.**—¡Ene Jainko oi, gure zaindoki ta indar oi! ¡o Jauntzaletasun iturri ori! Zure Doibatz edo Eleisaren otoi samurrak aditu egizuz, uste-betez eskatzen dogun au, egiz iritxi daigun. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Garbitasuna eskatzeko.** —Erre egizuz Goteuna'ren (Espiritu Santo) suaz gure biotz ta errayak, gorputz garbiz ta biotz aratzez Zuri otsein daitzugun. Jesu-Kisto gure Jauna'arren.

**Zoritxar aldiyan.**—Ez, arren, ezetsi edo despreziau Jainko altsu oi, atsebagepian datzan (etzunda dagon) Zure erri au; ezperen Zure izen deunaren aintzaz edo gloriaz, zoritxar-aldiyan sorozi (sokorridu) gagizuz. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Euria eskatzeko.**—Zeu'gan bizi, ibilli ta Zeurez irauten dogun Jainkuoi, emoi-

guzu biar dogun euria, aldiko soroziz edo sokorruz urgazita (lagunduta), ustetsuago alegindu gaitezen betiko ogasunak iristeko. Jesukisto gure Jauna arren.

**Eguraldi ona eskatzeko.** — Entzun, arren, Jaun oi, gure deya ta aditu, eskatzen dautzugun eguraldi ateria emonik, geure gaiztakeriagaitik zuzen zigortu gozuzan - ezkero, zeure errukiz sendotuta, zure biozperetasun ondorenak nabaitu edo susmau daiguzantzat. Jesukisto gure Jauna arren.

**Ziltzaldiyetan** *(tentaziñuan).* —Deungia ondu ta obendiaren (pekatari) eriotzarik nai ez dozun Jainko oi! Urgazi (lagundu) begiz, arren, zure nagositasunak goilaguntzaz, ta iraun eten bako babezaz (protección) Zure errukian baño itxoten ez daben zure otseiñok; Zure otseintzan beti zintzoak izan, eta iñungo ziltzak Zeu'gandik aldendu ez gaizan. Jesukisto gure Jauna arren.

**Gogai** *(pentzamentu)* **txarrak kentzeko.**—Jainko gustialdun eta errukiorerrukior ori, aditu laztanki gure diarrak,

eta yabon gure gogoa, berau igitzen daben gogai txarretatik, Goteuna'ri dagokion biztokia izan dedin. Jesukisto gure Jauna arren.

**Umiatzazko Otoya.**—Jesukisto neure Jaun oi, Jainko biziaren Seme oi, gizaldi oro baño len sortua izan arren, aldiyan ume izan nai zenduban oi! Umien sendotasuna maite dozun Jaun oi, biztaldiyan esan zenduban oi: ITXI UMIAK NI'GANA ELTZEN, EURENA DA BA DONOKI - BAKALDERRIA (zeruko erreñua); izuri ume onen gain zure oneskun - eskarra (grazia), ta adi Doibatz (Eleisa) ta gurasoen ziñestasun eta eraskuna (deboziñua), oitura on eta jakiturian beti geituaz duakezan Jainko ta gizonen aurrian, Zeu'tzaz atsegin izan, Zeu maite, Zeure bildur izan, Zeure aginduak egin, zartzarora eldu ta azken ona izan dagiyen. O gizadi Gaizkatzalle (salbatzalle), Aita'z ta Goteuna'z aldi oro bizi zaran oi.

**Eskaria.**— Gutzaz samurkiro arduratuta, gotzonak geu zaintzeko bialtzen dozuzan ene Jainko oi, aditu egizu gure otoya, ta gotzonak zaindu begiez gure umetxuok

eta aunen zorun lagun izan beitez betiraunez. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Aizkide aldez.**—Goteuna'ren (Espiritu Santu) eskarraz ziñestedunen biotzetan maitasuna izuri dozun Jainko oi, gure aizkidiei gogo ta gorputz-osasuna emoyezu, guk eskatzen dautzugun lez, indar gustiekaz Zeu maite izan, eta maitasunez Zeu'ri atsegin yatzuna dagikientzat. Jesu-Kisto gure Jauna arren.

**Etsayen aldez.**— ¡O maitasun-zale ta zaintzalle zaran Jainko gentzati ori! Emoyezuz gure etsayei gentza (bakia) ta benetako maitasuna, ta euren oben (pekatu) azketza (parkaziñua) ta zeure besoaren alez azke edo libre gagizuz gu euren malmuzkerietatik. Jesukisto gure Jauna arren.

**Gexo - aldez otoya.** — Ziñestedunen osasun betikorra zaran Jainko gustialtsua! Entzun, arren, Zure otsein gexo onen aldez dagitzugun otoya; beronentzat Zure erruki eske gagoz ba, osasuna iritxi-ta Zeure txadonan (etxe santua) eskerrak egin al - dagizuzantzat. Jesukisto gure Jainko'arren.

**Iñorbait ilda laster.**— Erruki-izan eta azkestea (parkatzia) dagokitzun Jainko oi, *gaur* ludi ontatik eruan dozun *(Urliaren)* gogo-aldez otoi dagitzugu: ez eyozu etsayen eskuetan yausten itxi, ez betiko aztuta laga, ezperen Zeure gotzonai agindu-yezu, artu ta zorun-aberrira (patria) eruan dagiyela; Zeu'tzaz ziñestu ta itxaron daun ezkero, geiztoki - oñazerik (inpernuko-pena) jasan (padezidu) bage, zorun betikorraz jabetu dedin. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Ildakoen aldez.** — Itzuli egizuz, Jaun oi, Zure belarriak nire otoyetara; Zeure erruki eske apalik gatoz ba, ludi onetatik atara dozun zure otseñaren gogoa argi ta gentza tokira eruan, eta Deunen lagun dagikezuntzat. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Guraso illen aldez.** — Geure aita ta ama goresteko (honrau) agindu dauskuzun Jaun oi, erruki zakiyez, samurkiro, nire aita ta amaren gogoei, ta azketsi egiyezuz euren obenak, eta nik ikusi begidaz nozbait argi betikorreko atsegintzan Jesukisto gure Jauna'arren.

**Il gustiyen aldez.**—Azketsi (parkatu) ta gizon gustiyen gaizkapena edo salbaziñoa nai dozun, ene Jainko oi! Zure erruki - eske gagokizuz, bizitz aunetatik juaniko gure etxeko anai, senide, ongille ta aizkidiei, ta garbitokiko gogo gustiyei, Andera Maria ta Deun oro (gustiak) bitarte dirala, betiko zoriontzan sartzia dagiyezuntzat. Jesukisto gure Jauna'arren.

**Goteunari otoya.**—Ziñestedunen biotzak Goteuna'ren (Espiritu Santu) argiz argitzen dozuzan Jainko oi! Iguzu, arren, Goteun berberorrez biztuta, ona gozetsi (gozo eretxi), ta beti Bere pozez atsegintzen ikasi daigula Jesukisto gure Jauna arren.

**Loyola'tar Eneko Deuna'ri.**—Zeure izen deunaren aintzarik andiyena zabaltzeko, ludiko Doibatza (Eleisa) gopatz edo kongregaziño barriaz sendotu dozun Jainko oi! Iguzu bere laguntzaz ta bere antzera ekin dayogula emen, beraz sarituak izateko donokian. Aldi oro bizi zaran orrek. Olantxe.

**Gontzaga'tar Koldobika Deuna'ri.**— ¡O Koldobika Deuna! ¡Gotzon (aingeru) oituraz apaindu oi! Nik, zure maitale kaskar onek, zeure ardurapian ipinten dot bereziki neure gogo ta gorputz garbitasuna, ta zeure gotzon garbitasunarren eskatzen dautzut, Kisto Jesus, orbanbako bildots, ta bere Ama garbi-garbi, Neskutzen-neskutza'ren (Birjiñen-Birjiña) babesian yarri naizula, oben gustitik yabonik. Ez itxi, orbanik ezañenaz neure gogoa loitzen; ezperen, ziltzaldiyan edo oben (pekatu) zoriyan nakuzunian, urrindu nire biotzetik gogakizun eta biozketa loi gustiak, eta itxartu nigan betiraunen eta Jesus Gurutzatuaren gomutia. Iratsi sendoro nire biotzean Jainkoa'tzazko bildurra ta bere maitasunez sutu nagizu, zeure antzekoa ludian izanda, zeure laguntza bidez Jainkoaz atsegintzea irabazi dagikedantzat. Olantxe.

**Sub tuum præsidium. — Andera Maria'ri.** — Zure babesian yarten gara Jainkoa'ren Ama Deuna, ez arren, ezetsi (despreziau) gure biar izanetan egiten

dautzuguzan otoyak, baña, bai, zoritxar gustietatik yabon gaizuz, o Neskutz (Birjiña) guren eta zoruntsu oi.

**Eriotza onesteko** *(ontzat artu)* **otoya.** Ene Jaun eta Jainko oi: ondixek onesten dot Zeure eskutik emon nai daustazun edozelako eriotza bere atsebage, oñaze ta min gustiekaz, gogo onon ta pozarren.

(Autortu ta Jaunartu ondoren otoi au egin ezkero, eriotzaldirako nekazka edo parkamen osua irabazten da).

# Iñarkun onuragiñak

## Goizeko gogaldiya (meditaziñua)

ASIYERA. — Gogaldu Jainkoa'ren aurrean zagozala. Gurtu egizu. Gertatzeko otoya.

¡Ene Jaun eta Jainko oi! Biziro ziñesten dot ementxe zagozala. Biotz-biotzez maite zaitut: gogo ben-benaz gurtzen zaitut. Eskerrik asko, Zeure nigazko oneite gustietzaz. Neure obeñ (pekatu) gustien azketza edo parkaziñoa apalki daskatzut. Eidazu Zeure laguntza gogaldi au ondo egiteko; nire gogalkizun, biozketa, asmo ta erabagiak Zeure aintzarako ta nire onerako izan beitez.

Onetarakoxe nator zeugana, ene Ama,

Andera Mari zorundun ori, gotzon eta deun orrek iritxi Jainkoa'gandik eskar edo grazi au.

GURE AITA GOIKOA..... AGUR MARIA..... ETA GLORIA PATRI.....

**1.º Gomutapen iñarkuna** (memoria-ejerzizio). — *Zertzaz gogaldu nai dot?* — Irakurri zerbait, gomutau irakurri dozuna. Ta gogoan artu.

ADIBIDEZ: Jesukisto'ren Nekauzteatzaz gogaldu nai ba'dozu, *gomutau* Jesukistoren, esku, oin, bizkar, gorputz gustiko zauriak: *gomutau* tokia, lagunak, jantziyak, izketa, izeka, birau, negar ta beste zertzelada gustiyak edo zeu geyen igitzen zaitubenak, ointxe bertan begiz joko ba'zenduz letxe.

**2.ⁿ Adimen** (entendimentu) **iñarkuna.** *Au egiya dalarik ¿zer egin biar dot nik?*— Oldoztu (pentzau) zer egin biar dozun, irakurri dozunera, zure bizikera, ibillera etsiteko. Gogoratu oñartian olan ein dozun ala ez. Ta ori egitia *egoki, onuratsu, atsegin, erraz, naita-ezko...* yatzula.

ADIBIDEZ: Jesukisto'ren Nekauztean adi-

men iñarkuna. *¿Nor da nekauzten dana? ¿Nork nekauzten dau? —¿Zelakoak dira neke ta oñazeak?—¿Zelan daruaz neke ta oñazeak?—¿Zergaitik daruaz?..* Gero norberen baitan (barruan) sartu ta buruari itandu: *¿Zer egin dot nik?—¿Zer egin biar dot?* au egitia *egoki, onuratsu...* ete yat?

**3.ⁿ Naimen iñarkuna.**—*Erabagi sendoa artzen dot au edo ori egiteko, olantxe biar dot - eta.* Zeure erabagiak artu ta zintzo betetzeko oldartu (animau). Baita ikusi erabagiok obeto betetzeko bidiak eta ez betzeko eragozpenak, batzuk artu ta bestiok kentzeko.

ADIBIDEZ: Jesukisto'ren Nekauztea gogaltzian, NAIMEN IÑARKUNA: Jesukisto'n gurutz bidetik jarraitzeko asmoa artu: maite izan, ni maitez ainbeste nekautzi dana: neure neke ta naibagiak Jesukisto'arren eruan: oben bidetik igesi, oben-arren Jesu-Kisto nekautzi dalako, ta abar.

**4.ⁿ Otoyaldija.**—*Baña neure erabagiak betetzeko aula ta argala nazan ezkero, Jainkoa'ri bere laguntza eskatu.*—Ta aboz ta biotzez eskatu goi-laguntza

zeure erabagien eduz ibilteko. Jesukisto'ren babesian zeure burua ipiñi ta esayozu: KISTO'REN GOGUORI asten dan arrentza (104'gn ingoskian). Orobat Andera Maria'ri, ta AGUR MARIA esan; beste ainbeste Joseba deunari ta zeure gogoko gotzon eta deunei.

AMAYA.—Aztertu gogaldiya, ondo ala gaizki ein dozun: ondo ein bo'zu, Jainkoa'ri eskerrak egin, eta gaizki ein bo'zu, okerra zuzentzeko asmoa artu. Azkenez GURE AITA GOIKOA esan.

## Jesus'en Biotz zale izan zadi

Jesus'en Biotz zale izan biar gara, Berak gizona ainbeste maite izan eta ainbeste maite daulako, ta gizonak, ordez, ain gitxi maite izan, eta, oin be, ain gitxi maite dabelako.

Gauza bi onek, astiro ta sakon, gogaltzen dituana, Jesus'en Biotzak izan dauskun maitasuna, ta Biotz orri guk egindako irañak, eskier (seguru) Jesus'en Biotz zale izango da.

Eraskun edo deboziño onen *egikixunak* bi dira MAITASUNA TA ORDAÑA. Maitasuna, ainbesteraño maite izan gaitulako; Ordaña, ainbeste iraindu dogulako.

Eraskun gayak edo agerkunak, bakoitzari Jesus'en Biotz maitasunak eta Beroni irañak ordaindu gureak, gogerazten dautson gustiya.

Eraskun gai onetatik batzuk bai dira Jesus'en Biotza'ri gogokuago yakozanak.

ADIBIDEZ: *Jesus'en Biotz irudiak gurtu, etxeko ate-buruan ipiñi, bere jaya ospatu, illaren lenengo barikubetan Jaunartu, Ikurton* (sakramentu) *deun-deuna ikertu* (bisitau) *ta errime gurtu.*

Jesus'en Biotz-zalekizunik ederrena OTOI BELGUNTZA da, bere eintza gustiekaz.

Ona emen Jesus'en Biotzak Alakoke'tar Miren Margarite'ri egiñiko abintzak, gure gogoak bere Biotz zaletzeko.'

1. Ene Biotza'ri opaldutako goguei, euren bizibiderako biar dituen eskarrak (graziak) dagikietzedaz.

2. Euren sendi edo pamiliyei gentza damoketset.

3. Atsebage gustietan atseginduko dodaz.

4. Euren babes ta zain - toki eskierra izango nayakie bizitzan, eta, batez be, eriyotzaldiyan.

5. Euren arazo gustiyak asaro (ugariki) onetsiko ditut.

6. Obendiyak (pekatariak) aurkituko dabe ene Biotzian erruki - iturri ta muga bako itxasua.

7. Gogo epelak berotuko dira.

8. Gogo sutsuak agudo igongo dira deundasun(santutasun)gorengo malletara.

9. Onetsiko dodaz nire Biotz irudiya agiriyan ipiñi ta gurtuko daben etxiak.

10. Jaupariei (abadiei) biotz arrituak eragiteko eskarra damoketset.

11. Ene Biotz - zaletasuna zabaltzen dabenen izenak, neure Biotzian idatziko ditut, iñoiz ez ezabatzeko (borratzeko).

12. Illaren lenengo bederatzi bariku yarraitubetan Jaunartzen dabenari, ene Biotz - maitasun gustialtsuak azken-iraupeneko (azkeneraño irauteko) eskarra edo grazia eingo dautse.

## Andera Mari zale izan zadi

Andera Maria'tzazko zaletasun edo oneraspena, Bera Jainkoa'ren Ama ta gure Ama dalako goretsi ta bere naya egiteko *gogo ona* da.

*Jainkoa'ren Ama* dan gurena gogoratzen dauna, ta zeinbat maite, begipetu ta sorosten dituan Jainkoa'k Andera Mari - zale diranak, eta *geure Ama*'ren ondasuna, ta Jainkoa'gandik gizonentzako iristen dauzan eskar ta onegiñak, benetan Andera Mari-zale izango da.

Eraskun edo deboziño aunen guna da, Jainkoa'ren Amatzat gurtu, bere goitasun iya Jainkozkoarren; eta geure Ama lez maite izan, bere ondasuna Semia'ren antzekua dalako.

Andera Maria'tzazko zalekizunik onenak dira. Berari norberen burua opaldu, atsegin yakon gustiya egin eta iguin edo irain yakonik ezer ez egiteko asmo sendoz. Bere babesian yarri. Bere jayak eta larunbata bere omenez zaindu, Jaunartu ta egiñen onen batez, baru edo maitasun edo

errukizko egiñenez; gexuak ikertu, sorotzi ta abar. Bere kutuna edo domiñia soñian erabilli. Egunero Agurtza (errosariyua) esan, al dala, etxeko ta otseñekin. Jagi edo etzukeran *Iru Agur Maria*'k esan. Beste otoi batzuk egin. Bere irudiren bat euki ta agurtu. *Orrillia'n* goraldu. Bere bazkunen baten sartu. Atsegin yakun zerbait itxi. Garbitasuna zaindu.

Zaletasun aunen onurak dira: Andera Mari - zaletasuna *gaizkatze* (salbaziño) *ikurra* (señalia) da. Andera Mari-zaletasuna *deun* (santu) izateko biderik zuzenetarikoa da. Deun gustiyak izan dira Andera Mari-zaliak. Andera Mari - zaletasuna biderik onena da, lizunkeria igesi ta garbitasuna zaintzeko. Andera Mari - zaletasuna eriotzaldiyan gure poz ta atsegiñik zindoena izango da. Andera Mari - zaletasuna, batez be Karmel'goena, Garbitokitik agudo urtetzeko biderik onena da.

## Ogei ta amaika onu edo kontseju

### zuzen bizi ta ondo ilteko

1. Maite Jainkoa, beste gauza ta giza-eme gustiyak baño geyago.
2. Jainkoa'ren bildur izan, ez baña gizonen bildur.
3. Jainkoa'tzaz uste egizu, bizitz - arnasa dozuneraño.
4. Maite gogoz Doibatza (Eleisa), Doipurua ta beronen irakatsiyak.
5. Eskatu yozu Jainkoa'ri gaizkatu (salbau) zagikezala, ta gaizkatuko zara.
6. Jainkoa'tzazko jakingayak arduraz ta susterretik ikasi.
7. Ikurtonak sarri artu, ta ona izango zara.
8. Oben astunik ba'dagizu, autortu ainbat lasterren.
9. Eguneroko jaupa ta Jaunartza lako eraskunik ez dago.
10. Idazti (liburu) onak erosi, euki ta irakurteko sayatu.
11. Kutun edo domiñaren bat eruan beti soñian.
12. Zure etxian Gurutz ta Andera Maria'ren irudiya begoz.
13. Igande ta jayegunez otoi egizu, atsedendu ta atsegindu.
14. Bide onetan ibilli ta ona zaiteke.

15. Bide txarretik ba'zabiltz, gaiztoa izango zara.

16. Bazkun onen baten sartu zadi.

17. Ez iñoz bazkun txar edo txar-usañekoan sartu.

18. Obenik naspillatuenak eta ondorengo txarrenekuenak dira: aragikeria, lapurretia ta gaizki - esatia.

19. On egin eta eruan eguneroko nekia.

20. On egin, eta ez zara iñoiz garbatuko.

21. Gaizki ba'dagizu, goiz belu garbatuko zara.

22. Ez eikezu irakurri izparringi, aldizkingi ta idazti txarrik.

23. Ipuin-idaztirik ez irakurri, gitxi ta onak baño.

24. Astiya (denporia) ondo erazo ta txindiya aurratu.

25. Alaya izan zadi, olde (umore) onekoa ta jolas garbikoa.

26. Atsegintzeko gar geyegi ez izan, begirunez baño.

27. Lan eikezu atsedentzeko, ta atsedendu lan eiteko.

28. Gustiya (oro) ta oroi (gustiyai) ondo egiteko oitu zadi.

29. Ez iñori gatxik ein, biar-biarrez ez-pada.

30. Eskekuei (txiroei) al dozun gustiya emon ez dozu ezer galduko-ta.

31. Gustiyetzaz ondo esan; ezin ba'da, ixildu.

# Gurutz Bidia

## Asteko Otoya

(Aldara nausi aurrian)

Actiones nostras, quæsumus, Domine, aspirando præveni et adjuvando prosequere, ut cuncta nostra oratio et operatio, a te semper incipiat, et per te cœpta finiatur. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

## Eskintzeko Otoya

Ene Jesus errukior oi, ene Jabe ta Ondasun utz oi, gauza gustijak baño maitiago zaitut, eta amai-bageko ona ta Biotz-bera zaralako, Zure aurka oben (pekatu) egiñaren garbai-naz. Neu, obendi (pekatari) onegaitik egin zendun nekezko bidiaren

gomutaz, orain egingo dodan bide au opaltzen dautzut, eta emonda dagozan nekazka edo indulkentziya gustiyak irabazteko asmua dot. Izan beitez Zeuk nayago dozun Garbitokiko goguaren (arimaren) aldez. Indazu zure oñatzai beti yarraitzeko argiya ta indarra. Olantxe.

*(Erriyak).* Jesus auzpez naukazu
Gogo saminduba
Erruki - eske nator
Oso garbatuba.

# Lenengo Egotaldiya



**Eriyotz epai gogorra**

*(Abeslariyak)* Gurutzean ilgarri
Etsi dabe Jesus:
Oben larri gustiak
Gaiztetsi eikezuz.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

¡O neure Jesus onoi! Beraz Zu, Pilatus'ek emon daun eriotz epai gogorra entzun arren ixil-ixillik zagoz, neu nazala errudun jakinda! ¿Zer egin daiket ba nik orain? Baña ¿zer dagiket, Zu bage, ni argal utsa ba-naz, ta Zu neure indarra ta sendotasuna? Indazu arren, Zu'ganako zintsotasuna, ta neke ta gurutza gustiak Zure izenez eruateko indarra.

PATER NOSTER. AVE MARIA, GLORIA PATRI.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Bigarren Egotaldiya



**Jesus'i Gurutz astuna arrerazo eutsoena**

Gure oben ordaña
Lepuan darua:
Jarrai bere oñatzai
Nai bo'zu zoruna.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

# Otoya

Zeruko Bildotz otzanoi ¿nora zuaz gurutz astun ori lepuan dozula? Zek zarabiz ain azpiratuba? Eta Zu olan ikusita ¿ez ete dira nire begiyak negarrez urtuko? Samurtu ta ezotu egizu nire biotz lior au, ta indazu neure arrokeria erantzi ta Zeuri, apalki, (umilki) yarraitzeko indarra.

PATER NOSTER. AVE MARIA, GLORIA PATRI.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

## Irugarren Egotaldiya



**Guruzpian lenengo aldiz yausten da Jesus**

Lurrari ezarrita
Jesus ikuskezu:
Ez geyago obenik;
Biotzez garbatu.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

Ortze (zeru) ta ludiyari eusten dautsozun Jesus altsuboi! Lurrera ezarriya zakust. Gurutz astuna ganian eta Zeu azpiyan ¡au ikusgarriya! ¡Ez ete naz, Zu orrela ikusita, neure deungakeriatzaz garbatuko (damutuko)? Zeure esku altsuba emodazu, arren, yagi nadintzat. Lagun zakidaz, ene Jesus, lagun zakidaz, oben larriyaren gaiztakeriya ezaguturik, biztaldi gustiyan yausi ez nadin, eta eriyotzaldiyan betiko zoruna iritxi dagidantzat. Olantxe.

PATER NOSTER, AVE MARIA, GLORIA PATRI.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Laugarren Egotaldiya



**Jesus'ek bere Ama aurkitzen dau**

Amarik samurrenoi,
¿Nor billatzen dozu?
Ara zure Semia
Aor zure Jesus.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

¡O Amarik maitatiyena! Zelan aurkitu dozun, Zuk, negarrez, billatzen zenduban Seme laztan au! Buruba arantzez yosita, arpegi ederra izerdi, odol, txistuz ta autsez ezainduta; gorputz gustiya zauriz. Zure bular samurra erdibitu daun ezpatia neuk, neure gaiztokeriz, zorroztu dodala autortzen dot. Emen naukazube biyuen oñetan apalez ta garbaiz auspeztuta. Erruki nitzaz, ene Jesus, erruki nitzaz, ene Ama errukior ori, zeuen errukijaz neure obenetatik (pekatubetatik) azkatu, ta biztaldi osuan zuben oñazeak gogalduz, Donokiko (zeruko) atsegiñetan ikusi zaikedazantzat. Olantxe.

PATER NOSTER, AVE MARIA, GLORIA PATRI.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz.
Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

## Boskarren Egotaldiya



**Simon Zirene'tarra Jesus'i Gurutza eruateko lagun damotsoe.**

Jaunoi, urgazi naizu
Zeu'ri yarraitzeko:
Gurutz eta nekiak
Neure gain artzeko.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

# Otoya

¡O Jesus maite oi! Zelako gogorkeriya aurkitu dozun gizartian! Errukiz Gurutza eruateko laguna emoten eutzubela zirudiyan; baña, ona emen, Zu'tzazko amorrubaren asmorik okerrena. Ez dira oin artian egin dautzubenaz ase; euren eskuz Gurutz orretan yosi gura zaitube, ta Ontzi garratzaren azkenengo ondar samiñak edan eragin. Egin ba, ni oraindañoko deungakeriz garbaturik, biztaldi onetako neke ta gurutzak, gogo onez, Zeurekin artuta, betiko zoruntzan Zeure lagun izan nadilla. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz.

Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

## Seigarren Egotaldiya



**Beronike'k garbitzen dau Jesus'en arpegi odoltsua**

Zure irudi maitez
Bein aztu ez nadin
Ezarri, Jesus onoi,
Ene biotzari.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

ORIXE Y SABINO ARANA

# Otoya

Nozbait, Jesus onoi, errukiya be aurkitu dozu, ta saritzat Zeure arpegi deunaren antzezkiya (itxuria) iru itzuliko zapiyan irarrita (ezarrita) itxi dautsozu emakume senduari. Sendotu nagizu, ta gizon bildurra ostikopetuta, Zure legiari yarraitzeko indarra eidazu. Ezarri egiyozu, arren, Zeure arpegi deunaren antzezkiya nire goguari, egunez ta gabaz ta beti Zeu gogaldu; neure biyotzian Zure arpegi antzezkiya dodala bizi; neure biyotzian Zure arpegi antzezkiya dodalarik il, eta Donokiyan Zeure arpegi ezin ederragoa ikusi dagikedantzak. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz.

Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Saspigarren Egotaldiya



**Gurutzepian bigarren aldiz yausten da Jesus**

Jesus ona yausi da
Barriro lurrera;
Ez al zauz eratsiko
Ezek obenera.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

# Otoya

Ene Jesus Gustialtsuboi! Bigarren aldiz lurrian ezarrita zakust, nekiaz lertuta, areriyuen ostikopian, erri - ozte gustiyaren izeka ta irañak artzen. Neure arrokeriyak yausi erazo, ta nire andiusteak azpiratu zaitube. Indazu arren, arrokeriya, andustia ta neure buru-zalekeriya azpiratzeko eskarra (grazia): apaldasun-bidez beti ibillita, ezetsiya (desprezioa) ta irañak gogo onez artu dagidazantzat: Zeuri atsegin yatzun bidez ibilliyaz, Zure neke-oñazeak nolabait arinduta, Zugan bizi, Zugan il ta Donokiko atsegiñetara eregi nagizuntzat. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

## Zortzigarren Egotaldiya



**Jerusalen'go alabei itz dagitse Jesus'ek**

Zugatz guriya ba'dau
Jauna'k ain zigortu
Zu zaran iger orrek
¿Zer ditxarokezu?

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

Bai, Jesus maite oi! Ba-dot, bai Zeu'tzaz negar egiteko ziyua neure obenak olako neke ta oñaze biziya damotzubelako. Baita neure deungakeriyetzaz be negar egin biarrez nago, ba *zugatz guri gordiñian Jainkoa'ren zuzentza ain gogor agertzen ba'da ¿zer izango da nitzaz, surtarako baño gai ez nazan egur iger onetzaz?* Zu, bere Seme maite ori, nire obenak zeure gain artu dituzulako, ain gogorki zigortzen ba'zaitu Jainko zuzenak ¿zer izango da nitzaz bere asarre-egunian? Garbai (damu) negarrak emodazuz, arren, Jauna, emakume arekaz erabilli zendun errukiya iritxi dagidantzat. Indazu benetako biotz-negarrez ta maite-garbaiz garbitu nadilla, ta Jainkoa'ren bildurra izan bedi nire betiko yakituriya. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz.
Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

## Bederatzigarren Egotaldiya



**Gurutzepian irugarrenez yaustenda Jesus**

Gogoratu eikezu
Obenen astuna,
Irutan erasteko
Ortze ludi Jauna.

℣. *Adoramus te Chiste, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

¿Noizarte, Aita Goikuoi (zerukuoi), itxiko dozu zeure Seme bakar-laztana, gizon gogorren eskubetan? ¿Noiz arte gogorra agertuko zara zeure Seme onentzat, nigaz errukiorrago izateko? Egizu, ba, ezagutu daidala niri dauztasun maitasuna, ainbesteko maitasunari maitasunaz erantzuteko. Autortzen dot neure obenak dirala zure Seme maitia irugarrenez yausi erazo ta oñazez - oñaze darabillenak. Baña garbai naz, ta biyotzez bein eta milla bider auxe dirautzut: *Obenik ez geyago, Jauna, obenik ez geyago.* Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Amargarren Egotaldiya



**Jesus erantzi, ta biaztun mingotsa edan eragiten dautsoe.**

Billosik, lotsaz dago
Jaungoiko - Semia:
Ez iñoz be erantzi
Eskardun jantziya.

V. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

R. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

Ortzea (zerua) izarrez ta zelayak loraz yantzi ta apaindu dozuzan Jaunoi, ¡billosik! zakust. ¿Zer billosik? Jantziya soñari itxasita (pegauta) zendularik, azal ta odol zatiyak atara eutzuezan, gorputz osua, goitik beraño eratzita, zauri gorriya lez agertzen yatzula, ta onen gañez, aboa be biaztunez mindu eutzuen. Egizu, arren, billoztu nadilla ni neure oben eta oitura txarretatik; yantzi nadilla Zeure goi-eskar (grazia) ta ekandunez. Ez nadilla ludi onetako atsegin egarriz ibilli. Zure gurutzearen garraztasuna edan, eta Zure antzeko aurkitu nadin betiko estegiyetara deituko dauztasunian. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Amaikagarren Egotaldiya



**Jesus Gurutzean yosten dabe**

Gurutzan josi dabe
Jaungoiko bildotsa:
Josi Goiko bildurrez
Gogo ta biotza.

V. *Adoramus te Chiste, et benedicimus tibi.*

R. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

Zelako oñaze garratza artu zendun, Jesus onoi, zeure esku-oñak untze zorrotzez yosi entzubezanian, eta zelako atsebagia zeure Ama'rena, bere Semia, semerik ederrena, alan ikustean. Neugaitik untzau zaituben Jesus errukior oi! Josi egizuz gurutz orretan nire oben eta deungakeri gustiyak. Zeure maitasun eta bildurrezko untzez neure biotz au zauritu egistazu; ta Zure esku-oñak zauritu dabezan untziak nire obenak izan diran ezkero, Zeure maitasun eta bildurra neure girnak azpiratzeko bidia izan bediz, ludi ontan Zeukin gurutzian yosita bizi, ta betiko atsegiñetara eldu nadintzat. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Amabigarren Egotaldiya



**Jesus Gurutzean eskeita, iltzen da**

Il da Jesus Gurutzian
Bizitz dana il da,
Eyotzaz ibazteko
Guretzat bizitza.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

Begiyak jaso egizuz, gogo (arima) kistar orrek, eta begira Jesus ona ir[illegible] untzez eskegita; begira eriotz larriyan bere arpegi Jainkozkoa; begira bere zauri gustiyak barriztuta; begira esku-oñetatik lurreraño dariyon odol iturriya. Entzun bere areriyuak zelan azkesten (parkatzen) dauzan; lapur garbatuari ta gura danari, zelan betiko zoruna eskintzen dautson. Ikusi bere Ama Jon'en ardura-pian ipintzen daula, ta bere Gogoa (arimia) Aita'ri opaldu ezkero, buruba makurtu ta bizitza emoten dau. ¡Il da, ba Jesus! ¡Ta ilda, neugaitik!

¡O Aita Goikoa! Il da Zure Seme bakarra, ta il da, guri bizitz betikorra emotiarren. Egizu, ba, Jesus'en odola izan dedilla niretzat Zeuk zeure semetzat artutakuen ikurratza, ta bere eriotzaz biztu dedilla nire gogua, oben-eriotzaz barriro ez ilteko. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz.

Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Amairugarren Egotaldiya



**Jesus'en Gorputz-illa Gurutzetik eratsi ta bere Ama'ren altzuan iminten dabe.**

Ama maite kutuna
Altzuan Semia
¿Nori miñez biotza
Ausiko ez dautza?

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

# Otoya

¡O Ama tamaltsua! Zelako ezpata zorrotzak erdibitu eban zure biotz maitatia zeure Semia'ren Gorputza altzuan artu zenduanian. Zeure sabel garbiyan, Goteuna'ren (Espiritu Santuaren) bidez, sortutako Gorputz ederra, oso ubelduta (kolorgetuta), oso zaurituta, oso urratuta ikustez, zelako samiña izango ete zan Zure naibagia. ¡O Andera ta Ama tamaltsua! Zure oñetan etzuten gara biotza garbaiz (damuz) minduta. Geuk geure deungakeriz zure Seme ta gure Anai nagosiya Gurutzean il dogu: Zure biotz maitatia naibagez ausi, ta zure gogoa samiñez gazitu dogu. Aztu egizuz, Ama, gure deungakeri gustiyak; garbatzen gara. Geure Ama zara; Jesus'ek Ama'tzat emon zaiguz. Zure biotza iñoz agortzen ez dan maitasun eta erruki itxasua da. Garbitu egizuz gure gogoak; garbitu ta sutu gure biotzak, biztaldi onetan Zure ta Jesus'en lagun Gurutz ondoan izan ezkero, betiko biztal-

diyan be, atsegiñetan Zuben lagun izan gaitezantzak. Olantxe. IRU AGUR MARIA.

*Ora pro nobis, Regina Martyrum, ora-pro nobis.*

Otoi egizu gure aldez, Ziñopen Anderoi, otoi egizu gure aldez.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Amalaugarren Egotaldiya



**Jesus'en Gorputz Deuna il-obiyan sartzen dabe**

Ona neure biotza
Ama tamaltsua
Sartu emen barruban
Jesus'en Gorputza.

℣. *Adoramus te Christe, et benedicimus tibi.*

℟. *Quia per Sanctam Crucem tuam redemisti mundum.*

Gurtutzen zaitugu, Kisto, ta donesten (bedeinkatzen) zaitugu.

Zeure Gurutz Deunaz gizadiya gaizkatu dozulako.

## Otoya

¡Ene Jesus errukior oi! Bide nekatsu au neure maitasun utsez egin zendun. Ilda ta obiyan sartuta zagozan ori, gurtutzen zaitut. Baña neure biotz gaxuan sartuta bazengoz nayago neuke, Zeu'gaz aizkide bizi ta Zeure aizkidetasunian ilteko. Gurutz-bide onetan gogaldu dodan Zeure Nekauste (Pasiño) Deunaren bidez, ekatzu, arren, neure biztaldi - amayan jaki (janari) bakartzak Zeure Gorputz Deuna izan dagidala: nire azken itzak *Jesus* ta *Maria* izan daitezela; neure azken arnasa Gurutzean egin zenduanaz bat egin dedilla; aunela ziñesmen biziyaz, itxaro sendoaz ta maitasun sutsuaz, Zeure besuetan il ta Zeukin aldiyoro (betiko) Donokiyan (zeruan) bizi nadintzak. Olantxe.

Pater noster, Ave Maria, Gloria Patri.

Erruki gutzaz, Jaunoi, erruki gutzaz. Jesus'en eriotza izan bekigu betiko bizitza. Olantxe.

# Jesus'en Bost Zauriyei Agurrak

**Esker oñeko zauriyari.**—Biotzez gurtu ta mun dagitzut, neure Jesus'en zauri eder ori; ta bertatik izuri zendun odolarren azketsi (parkatu) neure ibillera gaiztoz egindako obenak, ta aldendu oben-bide okerretzaz,—*Pater noster...*

**Eskumako oñeko zauriyari.**—Biotzez gurtu ta mun dagitzut, neure Jesus'en zauri eder ori; ta bertatik izuri zendun odolarren, itzez ta egiñezko obenak azketzi ta zeure agindu bidez zuzendu eidazuz beti nire oñak.—*Pater noster...*

**Eskerreko eskuko zauriyari.**—Biotzez gurtu ta mun dagitzut, neure Jesus'en

zauri eder ori; ta bertatik izuri zendun odolarren, neure begi ta beste sentzunez egindako obenak azketsi, ta ez itxi iñoiz Zeugandik aldentzen.—*Pater noster*...

**Eskumako eskuko zauriyari.** — Biotzez gurtu ta mun dagitzut, neure Jesus'en zauri eder ori; ta bertatik izuri zendun odolarren, neure gomutapen, adimen eta naimenez egindako obenak azketsi, ta esku zabalaz neu onetsi ta Zeure zainpian euki.—*Pater noster*...

**Alboko zauriyari.** — Biotzez gurtu ta mun dagitzut, neure Jesus'en zauri gustiz eder ori, ta bertatik izuri zendun odolarren, zeure Biotz barruban yabon nagizu beti, ta Zeure biotzeko sukarrez nire biotz au erre ta kizkaldu egizu.—*Pater noster*...

# Gurutz-bide Abestiya

*Donostiaŕ J. And. Aba.*
*( O. M. Cap. )*

ABESLARIA



# Besperak

## Igandietan

### 1

Dixit Dominus Domino meo: * Sede a dextris meis.

Donec ponam inimicos tuos, * scabellum pedum tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion: * dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendoribus sanctorum: * ex utero ante luciferum genui te.

Iuravit Dominus, et non pœnitebit eum: * Tu es sacerdos in æternum secundum ordinem Melchisedech.

Dominus a dextris tuis, * confregit in die iræ suæ reges.

Iudicabit in nationibus, implebit ruinas: * conquassabit capita in terra multorum.

De torrente in via bibet: * propterea exaltabit caput.

Gloria Patri, et Filio, * et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio, et nunc, et semper, * et in sæcula sæculorum. Amen.

## 2

Confitebor tibi, Domine, in toto corde meo: * in consilio iustorum et congregatione.

Magna opera Domini: * exquisita in omnes voluntates eius.

Confessio et magnificentia opus eius: * et iustitia eius manet in sæculum sæculi.

Memoriam fecit mirabilium suorum, misericors et miserator Dominus: * escam dedit timentibus se.

Memor erit in sæculum testamenti sui: * virtutem operum suorum anuntiabit populo suo.

Ut det illis hereditatem gentium: * opera manuum eius veritas et iudicium.

Fidelia omnia mandata eius: confirmata in sæculum sæculi, * facta in veritate et æquitate.

Redemptionem misit populo suo: * mandavit in æternum testamentun suum.

Sanctum et terribile nomen eius: * initium sapientiæ timor Domini.

Intellectus bonus omnibus facientibus eum: * laudatio eius manet in sæculum sæculi.

Gloria Patri...

### 3

Beatus vir, qui timet Dominum: * in mandatis eius volet nimis.

Potens in terra erit semen eius: * generatio rectorum benedicetur.

Gloria et divitiæ in domo eius: * et iustitia eius manet in sæculum sæculi.

Exortum est in tenebris lumen rectis: * misericors, et miserator, et iustus.

Iucundus homo qui miseretur et commodat, disponet sermones suos in iudicio: * quia in æternum non commovebitur.

In memoria æterna erit iustus: * ab auditione mala non timebit.

Paratum cor eius sperare in Domino, confirmatum est cor eius: * non commovebitur donec despiciat inimicos suos.

Dispersit, dedit pauperibus: iustitia eius manet in sæculum sæculi, * cornu eius exaltabitur in gloria.

Peccator videbit, et irascetur, dentibus suis fremet et tabescet: * desiderium peccatorum peribit.

Gloria Patri...

## 4

Laudate pueri Dominum: * laudate nomen Domini.

Sit nomem Domini benedictum: * ex hoc nunc, et usque in sæculum.

A solis ortu usque ad occasum: * laudabile nomen Domini.

Excelsus super omnes gentes Dominus: * et super cœlos gloria eius.

¿Quis sicut Dominus Deus noster, qui in altis habitat: * et humilia respicit in cœlo et in terra?

Suscitans a terra inopem: * et de stercore erigens pauperem.

Ut collocet eum cum principibus: * cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in domo: * matrem filiorum lætantem.

Gloria Patri...

## 5

In exitu Israel de Ægypto: * domus Iacob de populo barbaro.

Facta est Iudæa sanctificatio eius: * Israel potestas eius.

Mare vidit, et fugit: * Iordanis conversus est retrorsum.

Montes exsultaverunt ut arietes: * et colles sicut agni ovium.

¿Quid est tibi, mare, quod fugisti: * et tu Iordanis, quia conversus es retrorsum?

Montes exsultastis sicut arietes: * et colles sicut agni ovium.

A facie Domini mota est terra: * a facie Dei Iacob.

Qui convertit petram in stagna aquarum: * et rupem in fontes aquarum.

Non nobis, Domine, non nobis: * sed nomini tuo da gloriam.

Super misericordia tua et veritate tua: * nequando dicant gentes: ¿Ubi est Deus eorum?

Deus autem noster in cœlo: * omnia quæcumque voluit, fecit.

Simulacra gentium argentum, et aurum: * opera manuum hominum.

Os habent, et non loquentur: * oculos habent, et non videbunt.

Aures habent, et non audient: * nares habent, et non odorabunt.

Manus habent, et non palpabunt; pedes habent, et non ambulabunt: * non clamabunt in gutture suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea: * et omnes qui confidunt in eis.

Domus Israel speravit in Domino: * adiutor eorum et protector eorum est.

Domus Aaron speravit in Domino: * adiutor eorum et protector eorum est.

Qui timent Dominum, speraverunt in Domino: * adiutor eorum et protector eorum est.

Dominus memor fuit nostri: * et benedixit nobis.

Benedixit domui Israel: * benedixit domui Aaron.

Benedixit omnibus, qui timent Dominum, * pusillis cum maioribus.

Adiiciat Dominus super vos: * super vos, et super filios vestros.

Benedicti vos a Domino. * qui fecit cœlum, et terram.

Cœlum cœli Domino: * terram autem dedit filiis hominum.

Non mortui laudabunt te, Domine: * neque omnes qui descendunt in infernum.

Sed nos qui vivimus, benedicimus Domino: * ex hoc nunc, et usque in sæculum.

Gloria Patri...

### Ereserkia

Lucis Creator optime,
Lucem dierum proferens,
Primordiis lucis novœ,
Mundi parans originem.

Qui mane junctum vesperi
Diem vocari prœcipis:
Illabitur tetrum chaos,
Audi preces cum fletibus.

Ne mens gravata crimine,
Vitæ sit exul munere,
Dum nil peremne cogitat,
Seseque culpis illigat.

Cœleste pulset ostium:
Vitale tollat præmium:
Vitemus omne noxium:
Purgemus omme pessimum.

Præsta, Pater piisime,
Patrique compar Unice,
Cum Spiritu Paraclito
Regnans per omne sæculum. Amen.

v. Dirigatur, Domine, oratio mea.

r. Sicut incensum in conspectu tuo.

## Magnificat

Magnificat * anima mea Dominum.

Et exultavit spiritus meus: * in Deo salutari meo.

Quia respexit humilitatem ancillæ suæ: * ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Quia fecit mihi magna, qui potens est: * et sanctum nomen eius.

Et misericordia eius a progenie in progenies: * timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo: * dispersit superbos mente cordis sui.

Deposuit potentes de sede: * et exaltavit humiles.

Esurientes implevit bonis: * et divites dimisit inanes.

Suscepit Israel puerum suum: * recordatus misericordiæ suæ.

Sicut locutus est ad patres nostros: * Abraham et semini eius in sæcula.

Gloria Patri...

## Ama Neskutzaren jayetan

*Igandietako 1 ta 4'garrena.*

**3**

Lætatus sum in his, quæ dicta sunt mihi: * in domum Domini ibimus.

Stantes erant pedes nostri: * in atriis tuis, Ierusalem.

Ierusalem, quæ ædificatur ut civitas: * cuius participatio eius in idipsum.

Illuc enim ascenderunt tribus, tribus Domini: * testimonium Israel, ad confitendum nomini Domini.

Quia illic sederunt sedes in iudicio: * sedes super domum David.

Rogate quæ ad pacem sunt Ierusalem: * et abundantia diligentibus te.

Fiat pax in virtute tua: * et abundantia in turribus tuis.

Propter fratres meos, et proximos meos: * loquebar pacem de te.

Propter domum Domini Dei nostri: * quæsivi bona tibi.

Gloria Patri...

**4**

Nisi Dominus ædificaverit domum: * in vanum laboraverunt qui ædificant eam.

Nisi Dominus custodierit civitatem; * frustra vigilat qui custodit eam.

Vanum est vobis ante lucem surgere: * surgite postquam sederitis, qui manducatis panem doloris.

Cum dederit dilectis suis somnum: * ecce hæreditas Domini, filii; merces, fructus ventris.

Sicut sagittæ in manu potentis: * ita filii excussorum.

Beatus vir qui implevit desiderium suum ex ipsis: * non confundetur, cum loquetur inimicis suis in porta.

Gloria Patri...

## 5

Lauda, Ierusalem, Dominum: * lauda Deum tuum, Sion.

Quoniam confortavit seras portarum tuarum: * benedixit filiis tuis in te.

Qui posuit fines tuos pacem, * et adipe frumenti satiat te.

Qui emittit eloquium suum terræ, * velociter currit sermo eius.

Qui dat nivem sicut lanam: * nebulam sicut cinerem spargit.

Mittit crystallum suam sicut buccellas: *

ante faciem frigoris eius quis sustinebit?

Emittet verbum suum, et liquefaciet ea: * flabit spiritus eius, et fluent aquæ.

Qui annuntiat verbum suum Iacob, * iustitias et iudicia sua Israel.

Non fecit taliter omni nationi, * et iudicia sua non manifestavit eis.

Gloria, Patri...

### Ereserkia

Ave Maris stella
Dei Mater alma
Atque semper Virgo
Felix cœli porta.

Sumens illud Ave
Gabrielis ore,
Funda nos in pace,
Mutans Evæ nomen.

Solve vincla reis,
Profer lumen cæcis,
Mala nostra pelle,
Bona cuncta posce.

Monstra te esse matrem,
Sumat per te preces,
Qui pro nobis natus
Tulit esse tuus.

Virgo singularis,
Inter omnes mitis
Nos culpis solutos
Mites fac et castos.

Vitam præsta puram
Iter para tutum,
Ut videntes Jesum,
Semper collætemur.

Sit laus Deo Patri,
Summo Christo decus,
Spiritui Sancto,
Tribus honor unus. Amen.

V. Dignare me laudare te, Virgo sacrata.
R. Da mihi virtutem contra hostes tuos.

MAGNIFICAT *igandietan lez.*

# Abestiyak

## Jaureskunderako

### Pange lingua



## Tantum ergo




V. Panem de cœlo prœstitisti eis.

R. Omne delectamentum in se habentem.

# Jaunartzarako

OTAÑO'TAR N.






# Ama Neskutzari

## Karmeldarren Agurra



Sal-ve ma-ter mi-se- ri - cor - di - æ



Ma-ter De- i, et ma- ter ve- ni-æ, Ma-



ter spe-i, et ma-ter grati - æ, Ma-ter ple-



na sanctæ le - ti - ti - æ O Ma - ri - a!



Sal - ve de - cus hu - ma - ni ge - ne - ris
Es - to Ma - ter nos- trum so - la - ti - um



Sal-ve Vir - go dig-ni - or ce - te - ris, Quæ vir-
Nostrum es - to tu Virgo gau-di - um, Et nos-



gi-nes om - nes trans gre - de - ris Et al - ti - us
tandem post hoc ex - si - li - um, Læ - tos jun-ge



se - des in su - pe - ris, O MA - RI - A!
cho-ris cœ - les - ti - um.

## Salve Regina



Sal- ve Re- gi-na,*Ma-ter mi-se - ri - cor-



di - æ, vi-ta dul - ce - do et spes nos-tra



sal - ve. Ad te cla-ma-mus ex- su-les,



fi- li - i He - væ Ad te sus pi - ra - mus



gementes et flentes in hac la cri-ma-rum va-lle



E - ia er - go ad - vo - ca - ta nos - tra




V. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

# BILLA - BIDIA


| | Ingoskia. |
|---|---|
| SARBIDIA . . . . . . . . . . . . . | 7 |
| Kistar onaren bizikerea . . . . . . | 9 |
| Jagitaldirako otoyak . . . . . . . | 15 |
| Abemarietakuak . . . . . . . . . | 18 |
| Etzataldirako otoyak.—Gogo azterketia. | 20 |
| Mayaren onespena . . . . . . . . | 23 |
| **Mesea** . . . . . . . . . . . . | 25 |
| **Autorkintzea**. . . . . . . . . . | 61 |
| Autortzeko gerkuna. . . . . . . . | 66 |
| Gogo - azterkuna . . . . . . . . | 67 |
| Pekatuen garbaya . . . . . . . . | 89 |
| Autortzeko era . . . . . . . . . | 91 |
| Oben - nekia . . . : . . . . . . | 92 |
| Autorkuntza osterako otoyak . . . . | 92 |
| **Jaunartza** . . . . . . . . . . | 95 |
| Jaunartze aurretiko gogo - gayak. . . | 96 |
| Jaunartze aurretiko otoyak. . . . . | 98 |
| Jaunartze ondorengo otoyak. . . . . | 103 |

Ingoskia.

Te Deum (euzkeraz) . . . . . . . . 108
**Otoi batzuk** . . . . . . . . . . . 112
**Iñarkun onuragiñak**. Goizeko gogaldiya 128
Jesus'en Biotz - zaletasunatzaz. . . . 131
Andera Mari - zaletasunatzaz . . . . 134
**Ogei ta amaika onu** zuzen bizi ta ondo ilteko 136
**Gurutz - bidia** . . . . . . . . . . 138
Jesus'en bost zauriyei agurrak. . . . 169
**Besperak** . . . . . . . . . . . . . 172
**Abestiyak** . . . . . . . . . . . . 184